

anaitasuna

1977.EKO EKAINAREN 15.EKOA 342 . ZENBAKIA 35 PTA.

MADRILEK ERABAKI DIGU:



HERBESTERA



Onhartzeko prest beti. Onhartzeko prest beti. Onhartzeko prest beti.

Kalitatearen Nazioarteko lehen Saria eman ziguten.

Eta CONDISA ez zer ezer gertatu.

Bigarren ez eman ziguten.

Eta lehen bezalaxe.

Orain, eta hirugarrenez, golardoa garrantzitsu hori eman berri digute.

Eta, hirugarrenez, CONDISA, berriz ere hura onhartzeko prest dago, gauza berberak orain arte bezain ongi egiten segitzeko erantzunkizunaz.

Gai elektrotekniko eta elektronikoen aukera eta egintza bikain berberaz, halegia.

Bere 17 ordezkaritza eta banatzeko dituen 200 puntuetan bere orain arteko zerbitzu egokiak eskaintzeko prest.

Bere giza ekipoaren profesional gertatze berberaz.

Hiru aldiz arrazoia eman digute.

Hiru alditan, eta behar diren guztietan, arrazoi berberaz irauteko prest gaude.

CONDISA

Bulego nagusiak:

Ldo. Poza, 52 Bilbo - 13

Kalitatearen Nazioarteko Saria. Hirugarrenez.



BAT. BI. HIRU.

AURKIBIDEA

- 3.- Editoriala
- 2.- Indar Errepresibo berriak
- 3.- Donostiako berriak
- 6-7.- Dorao lanzagortak salhatzen du: norbaitak herria hondatzen du.
- 8-9.- Zientzia Euskaraz? Zergatik ez?.
- 10-12. Lege berrien aurrean
- 13.- Terrorismoaz
- 14-15 Frankismoaren kumeak
- 16-21 Gure Psikhiatrikoen egoera erogarria.
- 22-24 Gizonaren jatorriaren bila
- 25-28 Komikia
- 29.- Oinharizko euskara
- 30.- Doña Prudentzia eta Idealista.
- 31.- Legorburu baserria
- 32-35 Daituren inguruan (3)
- 35-39 Elkar-ikuska
- 40-42 Euskal Idazleak gaur
- 43.- Lau Haizetara
- 44-45 Artes eta Gizartea
- 45-48 Emakumeak
- 50.- Kalakoa

Makinistak: Itziar eta Idoys
Maketapena: Erramon Zumalabe

Muntaiak: Txomin
Argazkiak: Arkoila
Moldiztegia: Gráficas San Pedro.
Part. Alzola, 2
BILBO.

Dep. Legal: BI-1753-1967.

BAT. Madrilen izandako paktuak ez ziren oso baliotsuak izan, presoak kaleratzeko behintzat; zeren, agian PNVri beste gauza batzutarako baliotsu izan baitzaizkio; agian...

Gabonetarako izanen zela, Aherri Egunerako izanen zela, beti izanen zela. Bitartean, euskal populuak demostratu egin du berriro ere, berak duela mugimendu historikoaren erroa. Inork ez dezala dudatan ipin hemen gertatu izan den hau, herriaren garaipen historiko bat izan ez denik. Halaber, gure herriak, alderdi batzuren errepresentatibitate faltsu eta beraien harrokerien gainetik, bera dela jaun eta jabe demostratu du. Zorionak!

Eman duten apurra ez dute, noski, dohainik eman, zazpi euskaldun hil baitituzte, gure herriskak goibelduz. Hilkanpaiek dei egin dute berriro.

Euskaldunek ikaratu egin dute gobernuak, eta berehala behartua egon da zenbait euskal gudari ateratzeko. Oraingo honetan herbestera. Pauso bat da, eta ez ttikia; baina, jakin beza gobernuak —oraingoak edo gerokoak— herbesteratuen zerrendak ugarituz, ez garela batere konforme, ez dugula ez presorik ez herbestaturik nahi. Eta, orain preso eta herbestera diren guztiak, Euskal Herriko kaleetan, baserrietan, lantegietan eta eskoletan nahi ditugula; inola ere ez ditugu Oslo, Vienna eta beste herrialdeetan nahi. Gainera, ba dira oraindik, espetxean diren beste batzu, eta horik ere ez ditugu ahanzten. Horregatik, amnistia lortu arte hauxe oihukatuko dugu:

PRESOAK ETXERA, HERBESTERATUAK ETXERA!

BI. Gobernuaren hauteskundeak.

Gobernuak hilaren 15erako prestatu duen maskarada ez du batere txarra, eta dudarik ez Iparraldeko anaiek egiten dituztenak-haik serioago dira— baina handiago, ederrago eta zaratalariago dira. Gobernu honek planteiatzen dizkigun hauteskundeak, bere neurrian egindako hauteskunde batzu dira, eta inola ere herriei-Espainiako herri guztien nortasuna eta burjabetza bihurtzeko. Betidanik agindu dutenek, agintean nahi dute jarraitu, honako honetan ulertzen da beraien jokabidea.

Gobernuan egon diren bitartean, zer eman diote herriari?. Apurrrak, besterik ez. Zergatik ezin dira izan printzipio batzu eztabaidagarriak? Zergatik gorte bikameralak? Zergatik maneiatu dituzte hauteskundeak? Bistan dago, arestian esan dugu bezala: haien neurrian eta beraien birproduziorako egindako hauteskundeak dira.

Besterik ez badago ere, ohorezko irtenbide bat egonen da.

HIRU. Geure zenbakia egiten ari garen bitartean, hiru gertaera garrantzitsu egon dira prentsa mailan Euskal Herrian.

1.— Zeruko Argiak— euskal prentsan maisua-zentsurarekin arazo larri bat ukan du. Gure ustetan, Zeruko Argiak asko zirikatzen ditu diktadura eta honen semeak; horregatik, funtzionarioek oztopoak ipini dituzte 741. zenbakia kaleratzeko orduan, esaldi batetuz baliatuz. Zeruko Argiakoek zenbakia erretiratzea erabaki dute zigor baten beldurrez, judizio militar baten posibilitateak baitziren.

Bistan dago, herriaren alde jokatzeko duen guztiak, ordaindu egiten du bere joera; eta, Zeruko Argiak beti jokatzeko du herriaren alde.

Gure agur beroenak lerro hauetatik.

2.— DEIA kaleratu da, gure agurra bertan lan egiten duten guztientzat.

Frankismoaren pean eta bere zerbitzuan egon diren egunkariak ez dira batere poztu, horregatik pozten gara bereziki. Ba da garaia oligarkiaren zerbitzuan diren egunkari guztiak pikutara bidaltzeko.

3.— Azkenik, eskuindar basatiek egin dutena Loiola Herri Irratian, ez du komentariarik behar. Bortxa erabiltzen abilak dira madarikatu horik. Hauentzat gure madarikapen guztiak.

INDAR ERREPRESIBO BERRIAK

Euskal indar errepresiboekin topatu gaituk! Hauxe da atera genuen ondorioa, barikuan 3an, Ezkurdi Jai-Alaiko atarian geundenok.

Frontoi hartan PNVko meeting bat zegoen. Jendea franko, beste meeting batetik gentozen eta, berandu pixkat joan ginen hara sartzeko asmoz. Gure artean ba zegoen Durangoko Amnistiaren aldeko Batzordeko batzu eta banandu nahi zuten Bizkaiko Batzordeak ateratako panfletoa amnistia eta hauteskunderi buruz.

Aurretik joan ziren bertako PNVkoengana panfleto hori meetingean irakurtzeko baimena eskatzeko. Hauen erantzuna benetan harrigarria zen: Guk ezin dugu hori baimendu, meetinga "Bizkaiko Buru Batzar"rek antolatuta dago eta; hala ere utziezaguzue papera eta behar bada haiek irakurriko dute.

Atarian, jendea barrura zihoala, behar bada panfletoak ikustean, "Servicio de Orden" eraginkorra hasi zen jendea kontrolatzen: poltsak aztertzen, jendea arakutzen ere... eta azkenean jendea sartzen ez uztea erabaki zuten.

Jendeak azalpenak eskatu zituen, ez baitzen logikoa alderdi batek amnistia "eskatzea" bere programan eta gero jendea kalean uztea gauza berbera eskatzeagatik. Ez ote da, hauteskunderi begira, gai hori ezeroso zaiolako?

Jendearen oihuak lasaitzeko edo, PNVko

"morroskoek" elkarrizketari ekin zioten:

— Pero qué amnistía; si la amnistía ya está dada.

— Tú que hablas de democracia, cállate que voy a hablar yo.

— Lo que pasa es que sois unos alborotadores.

— No hay sitio (irteten ari ziren pertsonen nahiko lekua zegoela esaten ziguten). (sic)

Hola egon ginen ordu bat baino gehiago. Esan beharra dago, gurekin PNV aldeko pertsona askok eta bereziki "Alderdi"ko militanteen seme-alaba batzuk kanpoan gelditu behar zuten.

Mementu batetan eta batek kartel bat atean erantsi zuelako, Kantzerberoak jendea jotzeko moduan irten ziren, eta hau da lotsagarriena, jendea arinetan alde egiteko beharrean aurkitu zen.

Hau ez da honelako gauzak jazotzen diren lehen aldia. Orain dela guti Gernikan gauza berbera pasatu zen, bai eta Loiolan Aberri Egunez, Etxarri-Aranazeko egunez, e.a.

Jokaera hau politika berezi baten barruan ikusi behar dugu, zera da: "Partidos de Orden" derizetenen politika.

Ba da garaia, sentimentalismoak alde batetara utzirik, gauzak bere izenaz deitzeko eta holako jorak salhatzeko. Hauteskunderi ematen digute horretarako itzelezko oportunitatea. Gutierrez, bakoi-tza den bezala elkar ezagutzeko balio ukan dezaten.

Errexil

Pareta estaldura eta ate erakusketa

José de Ezpeleta, S. A.

Bulego nagusiak: Príncipe, 5 - tel.: 423 09 30 - Bilbo

Erakusketa: Buenos Aires, 1 bajo - tel: 423 59 55 - Bilbo

Industri aldea: s/n - tel: 84 10 13 y 84 13 87 - Zarautz

Industri Polygonoa: Alí-Gobeo - Urartea s/n - tel: 24 38 50 - 54 - Gasteiz

Cta. Bilbao - S. Sebastián, Km 4'5 - Edf. Saga - tel: 449 50 58 - 59 - Etxebarri



HAUTESKUNDEEN MALIOBRA ETA EZKER ABERTZALEEN EZEZKO JOERA

Harrigarria da Espainiako oligarkiak Suarezzen bidez agertu duen abiltasuna eta maliobra gaitasuna. Lehen futbola bazen, orain europar demokrazia eragitekotan hauteskunde lehiaketa bizi baten erasopean jarri gaituzte jendeen opio gisa. Euskadin bertan azken denboraldiko herri mobilizapen iraultzaile eta zabalduak bazterturik, zenbait alderdi zaldi lasterka bailitzen ekin dute kanpaina itsu batean.

Bestalde, alderdi guztiek, beren alderdikeria eta protagonismokeriagatik eta Gorteetako ganbaran ordezkariaren bat edukitzea Euskadirentzat guztiz garrantzizkoa delakoan Suarezzen zepoan erori dira, nahiz eta ganbara horietako diputatuei base-rriko ganbaran zaunka ari den txakurrari baino arreata gutxiago egin.

Baina, arazo zalapartatsu honetan eritzi sendo bat egiteko beharrezkoa zaigu zehatz batzu azterzea.

Adibidez, Monzonen eraginez alderdi abertzaleen Batzarre Nagusian P.N.V.—E.A.J.en jarrera hulegia, deus kondiziorik gabe, eta nahiz eta beste alderdi guztiak baterako ekintza bat onhartu, hauteskundeetara jo behar zuen, mitin-hitzaldietan jendea berotzeko bestelako demagogiaz baliatu badira ere. Gainerako mahaikoek, jakina, batzarrea abandonatzera behartu behar izan zuten P.N.V.ko ordezkaria.

Bestalde, beste alderdi abertzaleak ere dekantatu dira eta Euskadiko herri burruka iraultzaileari zaputz eginez, erreforma bidea aukeratu dute eta Suarezzen sasi-demokrazian, besterik gabe, parte hartu. Horrela, garbi geratu da Euskadiko zenbait alderdi abertzalaren erreformismoa. KAS bera ere ez da garaiak eskatzen zuen alturan gertatu, nahiz eta hauteskundeetarako hautesgaiak Maiatzaren 18an erretiratuak izan, KAS barruan koordinaketa sendorik ezean noski, edo EIAren (bere Demokraziako Zentralismoaren) protagonismokeriaz.

Zer esanik ez, ezkertiar estatalistak Euskadiko herri burruka berezitik at agertu direla, ikuspegi zentralista eta espainolistapean hartu baitute herri burruka.

Hala ere, ezker abertzale iraultzaileok ez dugu etsi eta ez dugu hainbeste urtetako langile burruka eta herri mobilizapena eta autoorganizazioa sasi-demokrazia burjes baten esku utziko. Ez baitago sinesgarritasun minimorik, ez eta presoak etxean, ez Euskal Herriaren subiranotasunaren eta langilegoaren autoorganizatzearen aitorenpenik.

HAUZO ETA HERRI BATZARREAK

Goian aipaturiko politik bide erreboluzionaria, ba dakit, zenbaitentzat utopia, besterentzat anarkokeria, edo politikherhaiketa, e.a. izanen dela. Baina ero talde batzu ez gabela frogatzeko begira Donostian bertan zer dioten hauzo asanbladetak gehiengo handi batek. Herriko jendea, ezker abertzale dira batipat, eta herri heldu eta autoorganizatu bezala zenbait alderdiren kanpaina erasoan gaindik abstentzio ekintzaile batera jo dute.

Antiguako hauzategian, KASen aurkezpena egiterakoan, bertan aurkitzen ziren ia hirurehunek hauteskunderi boikot egitearen alde agertu ziren, eta EIAren esplikazioak era koherentzia gabekoak bezala jotzen zituzten.

Amaraberriko asanblada ere boikotaren aldeko kanpaina baten ekitea erabakia da. Amara Zaharrena, Ulian, Intxaurrondon eta beste hauzo batzarreetan ere ekintzailerik gehienak boikotaren alde daude. Hernanin 500 baino gehiago herri batzarrea ere boikotaren alde agertu ziren, eta Legorreta eta Gipuzkoako beste zenbait herritan ere postura berean diraute.

Amnistiaren aldeko Gipuzkoako ia gestora denak abstentzioaren alde agertu dira, baina, oraingoz idazkari ekintzaileenetako batzu alderdi hauteskundeazaleetan konprometaturik daudenez, ez zaizkio boikotaren aldeko kanpainari ekin.

Asanblada hauk oso zabalak ez badira ere, oso talde kontzientziatu eta burrukalariak dira eta beren iraultza bidean ez da alderdi erreformistarik kabitzen. Hala ere, ez genuke hauteskunderia edo elektoralismoa honetan erori nahi, eta boikot jarrera hartzen badugu salaketa bezala hartzen dugu, herri asanblada hauk zabaltzea eta sendotzea baita herrigintzarako politikarik jatorrena. Nik behintzat boikotaren aldeko jarrera hau horrela ikusten dut eta ez o/o portzentia bat lortzeko asmoetan. Eta ez gara alderdien hauteskunderian edo hauteskunderia kontrakoan ere ez erori ez erre.

Ekainak bi, biharko ministrari batzarrearen zain daude 65 alkate jaun eta beste zenbait, baina presoak gartzelatik atzerrira eramatearekin ez dut uste gauzak funtsean aldatuko direnik. Presoak, gure gudariak dira eta etxean behar ditugu eta Euskadiren askatasun osoa lortu arte iraultza bidean jarraitzeko askatasun guztiekin.

Alex.

EKONOMIA

DORAO LANZAGORTAK SALHATZEN DU: NORBAITEK HERRIA HONDATZEN DU

Dorao Lanzagorta jaunak ohiturik gaitu, igandero LA GACETA DEL NORTE egunkariak "Especial Economía" sailean argitaratzen dituen artikuluak jasatera.

Batzutan batek pentsatzen du ea noraino den interesgarria berarekin hitz egitea. Ba, artikulu hau ez da berarekin elkarrizketa bat izango, baizik eta beren azkeneko artikulu iradokorrek inspiratzen dituen funtsetako bati buruzko azterketa bat (Artikulu 77/5/23an argitaratua).

Antza denez, laster Espainiar Estatuko deserdirapen ekonomikoaren garaian sartuko gara. Euskal Herriak bere ekintza ekonomikoaren kontrolatzeko duen beharrezana aurreko artikuluetan ukitu dugu. Honetaz Dorao Lanzagorta jauna kontzientea dela dirudi, ondoko hau esanez: "Euskal Herriko problema haundi hauentzako nolako soluzio ekonomiko eta fiskalak behar ditugun aztertu behar dugu" "Soluzio ekonomiko eta fiskal" hauetatik aparte, Dorao Lanzagorta jaunak probintzietako mugak gaindituko dituen "lurralde-plangintza"ren urgentzia gogoratzen digu. Eta, azkenez, aspektu hau kontutan hartu behar ditugun guztiak ez direla esaten digu, gaiaren "aspektu sozio-kultural eta politikoak" erdian daudelako.

Gero, Dorao jaunak Euskal Herriko lorpen eta porrot ekonomikoen banaketa bat egiten digu:

1.— "Europakoarekin gonbara daiteken bizi-modu bat gozatzen badugu, kapitalizapen prozesu sakon bati zor diogu"...

2.— "Bake publikoaren narriaduraren fenomeno arriskugarria eta enpresen haustura ihazko erritmuaren irauten badute, bizimaila, errentaren

hazkundera eta enplegu osoaren lorpena ezina izango dela aurretik esan dezakegu"...

Beste moduz esanda, Dorao jaunak eskatzen diguna da frankismoaren azken 40 urte hauetan lanpostuak sortu dituen oligarkhia saiatsuari omenaldia egin diezaiogun eta proletalgoak duen soldata haundiagoen aspirapena balazta dezagun.

Dorao jaunak sobera daki Euskal Herrian frankismoaren etorrera baino lehen eta batez ere etorri gero aberastu zen euskal deiturak dituen burjeseria oligarkia horren portaera zein izan den (jarraikoan horren aipamena egingo dut burjeseria hitzarekin): Euskal Herriatik kanpoan muntatu zituen. Zergatik ez du probetxatzen berak duda gabe eza gutuko dituen input-output taulen datuak eta beste batzu ere bai eta hauekin kalkulu bat, Euskal Herri-rako zer suposatuko lukeen hemen bere "burjeseria saiatsua" k lortu zuen plusbalioa kapitalizatzeak jakiteko. Beldur naiz burjeseria hori proba honetatik galdarraztaturik irtengo litzatekeela. "Burjeseria saiatsua" deitu beharrean, burjeseria koldarra deituko nuke, etekin errezen zalea, eta neurri haundi batez, esplotatu duen herriarekiko traidorea eta orain herri honi atera zaizkion etekinekin lanpostuak ematea uko egiten dizkio.

Dorao jaunak "soluzio ekonomiko eta fiskalei" "lurralde-plangintzari" eta "itxura sozio-kultural eta politikoari" buruz hitz egiten digu. Zergatik ez ditugu gai hauei buruzko bere bi klase sozialen ekintzak epaitzen? Ondoko galderak egingo nituzke:

1.— Azken 40 urte hauetan zer egin du burjeseriak Bizkaia eta Gipuzkoak gerra arte zuten Kontzertu Ekonomiko bezalako bat guttienez lor dezaten?



2.- Burjeseria honek non burrukatu du Euskal Herriko ekonomi eta bizi hazkundera planifikatzeko gai diren euskal erakunde minimum bat Estatuari ateratzeko?.

3.- Burjeseria honek zeintzu kultur erakunde sortu ditu Euskal Herriak jasan duen kultur genozidioa gerta ez dadin?.

4.- Burjeseria honek zeintzu aldakuntza politiko induzitu ditu eta zeintzu nazional eskabide exigitu ditu? Noiz eta noizdanik erabaki du langile klasearekin paktu egitea?.

Ba liteke Dorao Lanzagorta jaunak galdera hauei beste artikuluetan erantzutea; bitartean Olarra industrigizonaren azken liburua aztertzearekin konformatuko gara ea horrela zenbait erantzun aurkitzen dugun.

Dorao jaunak defendatzen duen burjeseriak odol eta izerditan ito gaitu eta orain, bere erostekin, nigarretan ito nahi gaitu. Nigarra hainbeste urtetan burrukatu zuen euskal erakunde minimum bat lortzeko. Uholde honen truke euskal proletalgoak bere menekotasun eta deitzen den "paktu soziala" eskaini beharko dio.

Geure eritziz, engania gaitzaten ezin dugu permititu. Euskal Herriak (klase herritarra, ez burjeseria) bere euskal kultura, bere errenta eta enpleguaren maila mantena eta jaso ditzan euskal erakunde minimum horrek behar du. Alderantziz, goi-burjeseriak Estatuan nahiko banaketa du bere entrepresetan gai honetaz interesaturik ez egoteko.

Euskal Herri honek Autonomi Estatutuko bandera eraman duena da (Amnistiakoa eta edozein eskabide nazionalak eraman dituen bezala) eta ez du inongo talde sozialaren eskutan utzi behar.

"Bake publikoaren narriadura eta entrepresen haustura" bakarrik ekidinen da Dorao jaunak Euskal Herriarentzat eskatzen duen "ekonomi-fiskal-lurralde-sozial-kultur-politik" konponketa, 40 urte hauetako burrukarekin konponketa hori posible egin duten klase herritarrengana errebertituko deanean.

Dorao jaunak "formula egonkor eta salbatzaille"-az hitz egiten digu. Aurkituko balu poztuko ginateke (behar bada, Bizkaiko Merkatal Ganbarako Ikasketa Departamentutik aurkituko duke); baina horrialde hauetatik kontseilatuko genioke, oker ez ibiltzeko, "nahi eta nahiez 1974. arte jarraitu den kapitalkuntza prozesu sakon" horretatik, berak hainbeste etsipenez oroitzen duenetik, urruntzen saia dadin.

Haran

JAKIN

EUSKAL KULTUR
ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondoren
berriz kalera!

Hiruhilabetez behin
argitaratuko da

Monografiak
dosierrak
azterketak
kritikak
gaurko gaiak

Bigarren zenbakiaren
gai nagusia:

NAZIO UKATUAK EUROPAN

Bigarren zenbakiaren lankideak:

P. Agirrebaltzategi
J. Apalategi
B. Bakaikoa
J. Intxausti
P. Iztueta
M. Pagola
I. Sarasola
J. M. Torrealdai
Txillardegi
P. Xarritton
M. Zalbide


JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65.11.06

ZIENTZIA EUSKARAZ? ZERGATIK EZ?



Bilboko Unibertsitateko Zientzi Fakultatean, han, Lejoan, mendian erdi galdurik, ba da gazte kementsurik. Ez nahi bezainbeste, baina bai zenbaitek nahiko luketena baino aski gehiago. Horrelako gazte ekintzaile batzu, Z.E.K.T. izen korapilatsuaren inguruan jo eta ke ari dira lanean, euskararentzako bide berriak urratzen. Aurten, adibidez, euskarazko ikastaldiak Unibertsitateak berak finantziatzea lortu ukan dute. Eta katedratiko numerarien antzerako nominarik kobratu ez dute arren —PNNen mailara ere ez baitira heltzen— eta kobratzeko mila kakalamurte eta itzulipurdi egin behar ukan badute ere, ez dute prezedente makalik finkatu; ez horixel.

Dena den, bizi nahi badugu, euskaldunok aurrerantz egin beharko dugu, eta Lejoako Z.E.K.T.-koek ere horixe pentsatu zuten. "Datorren urtean Fisika, Kimika eta abar euskaraz ikastea lortu behar dugu" zioten batzuk. "Hori utopia da" zioten bestek; eta, beharbada, duela zenbait urte, askok utopiatzat jotzen zuten proiektu hau. Baina eguneroko lanak, praktikak eta nekeak, helburu hori erdiesteko modukoa dela frogatu dute, Adolfo bigarrenaren eritzi paristarrak —azken batez, Paris zein Madril hemendik urrun (oso urrun) dabil— gorabehera.

Helburuak lortzeko, ordea, bideak urratu behar, eta hoberik ezean, inkesta bat atontzea otu zitzaizen gure unibertsitarietara, irakasle eta ikasleen eritzia biltzeko asmoz. Irakasle ez numerarien greba dela eta, inkesta hori atzeratu egin da, baina azkenean, berandu baino seguru, egin egin da. Besterik gabe, beraz, kalamatika aspergari hau alde batetara utzirik, inkesta honen emaitzak erakustera eta iruzkintzera saiatuko naiz.

NORTZUK ETA NOLA ERANTZUN DUTEN

Inkesta hau ahal zen jende gehienari banatu zitzaion. Hala ere, irakasleen greba dela eta, ez da erraza izan toki guztietara heltzea, nahiz eta ikastalde guztietan arduradun bat jarri den. Honelatan, bada, denetara 907 erantzun bildu dira, 839 ikasle eta 68 irakaslerenak prezeski. Hauetariko 743 (81,91o/o) Euskal Herrian jaiokak eta enparadua, hots, 164 (18,08o/o) Euskal Herritik kanpo jaiokak dira.

Alboan jarri ditugun koadroetan, euskararen ezagutze maila eta euskal irakaskuntzari buruzko eritziak agertu nahi ukan ditugu. Numeroak ezin argi-ago mintzatzen zaizkigu euskal irakaskuntzen alde.

Euskararen ezagutze mailari dagokionez, interesgarria da, datu hauk ihaz eginiko inkestarenekin konparatzea. Ihazko inkestan, euskaraz ezer ez zekitenak 66,89o/o ziren; aurtengoan aldiz 44,32o/o agertzen dira soilik egoera horretan. Inkestaren fidagarritasunaren mugak ahanzi gabe, bistakoa da euskararen aldeko giroa hobatzen ari dela, eta jendea euskara ikasten ari dela. Asko edo gutti, baina zerbait ba da. Euskaraz erraztasunez hitz egiten dakitenen ehunekobestea ere gorantz doa: ihaz 10,54o/o, aurten 13,11o/o. Dena den, hauen artean dauden analfabetuan kopurua handiegia da: 7,27/13,11, hots, 55,45o/o Noiz arte irauen duzue analfabetu?

Euskararen ezagutze maila

Ezer ere ez dakite.....	44,32o/o
Euskara zerbait dakite.....	42,55o/o
Hitz egiten dute baina alfabetatu gabe daude.....	7,27o/o
Hitz egiten dute eta alfabetaturik daude.....	5,84o/o

Irakaskuntza bilinguearen aurreko jarrera

Irakaskuntza bilinguea nahi dute.....	79,16o/o
Berdin zaie.....	9,04o/o
Ez dute nahi euskarazko irakaskuntzarik.....	11,35o/o
Ez dute erantzun.....	0,44o/o

Asignatura batzutan datorren urtean ikastaldiak euskaraz emateko proiektuaren aurreko jarrera

Proiektua onhartzen dute.....	83,35o/o
Berdin zaie.....	3,30o/o
Ez dute proiektua onhartzen.....	9,26o/o
Ez dute erantzun.....	3,85o/o



EUSKAL IRAKASKUNTZAREN AURREKO JARRERA

Bi galdera egin ziren euskal irakaskuntzari buruz. Lehen, hauxe: "Interesgarria ikusten duzu irakaskuntza euskaraz egitea?" Eta bigarrena, hauxe: "Zer eritzen diozu, lehen ikasmilan eta ahal den gaietan, ikasle euskaldunei ikastaldiak euskaraz emateko proiektuari?" Erantzunak bigarren eta hirugarren koardroetan ageri dira. Aldeko erantzunak guttiago izan dira lehen galderaren kasuan. Zergatik? Batzurenzat arraro gertatzen bada ere, emaniko erantzunetan ikusten denez, galdera hori inkonkretua izatean (guretzat guztiz konkretua izan arren), gaizki-ulertuak egon direla esan behar da. Kontra egitearen zergatikoetan ikusten denez, batzuk ulertu dute, bapatean euskara hutsera pasatzea eskatzen zela eta erdarazko ikastaldiak kendu nahi genituela; eta horregatik aurka jarri dira. Ordea, bigarren galderan arazoa gehiago zehaztean, jende gehiago agertu da alde.

Galderen erantzunarekin batera, alde edo aurka egoteko arrazoiak ere eskatzen ziren inkestan. Kolorre eta gustu askotakoak izan dira zergatikoak. Aipa ditzagun gehien eman direnak.

Irakasleen artean, aldeko arrazoi ugarietak on-dokoak izan dira: "Herri bakoitzak bere kultura eta hizkuntza lantzeko eskubidea duelako". "Diglosia-tik bilinguismora joateko". "Euskal Unibertsitate-rantz abiatzeko bidea delako". "Euskal irakasleak prestatzeko". "Euskararen normalizatzea lortzeko". "Aberastasun bide delako". "Euskal Herrian gaudelako eta bide honek inor izorratzen ez duelako". "Euskal Herriaren identitatea gordetzen laguntzen duelako". "Euskararen aitzinamenduak honelako proiektuak behar dituelako". Eta abar. Erantzun oso sinple baina gogor bat ere egon da: "Zergatik ez?"

Ikasleen artean ere antzerako arrazonamenduak bildu dira: "Ikastolen jarraipena prestatzeko". "Euskal Unibertsitatea eraikitzen hasi behar delako". "Kultur independentzia lortzeko". "Euskararik gabe Euskal Unibertsitateak ez dagoelako". "Hemendik bospasei urtetara maila guztietan berdin egiteko". "Nork bere hizkuntzaz ikas behar duelako". "Unibertsitateak kultur fokoa izan behar duelako". Eta abar.

Eta aurkako arrazoiak? Hara irakasle batzuk aurka egoteko zertzu arrazonamendu egiten dituzten: "Euskaldun gutti daudelako". "Egun posible ez delako". "Bibliografiarik eta irakaslerik ez dagoelako". "Ingelesez ikasi behar delako". Ez dut uste kaskoa asko berotu behar denik, hauek beren botoa Zentru Demokratiko hospatsuari edo emanen diotetik, beronen lea derren antzerako eritziak agertzen baitituzte. Izan ere, beren aitabitxiaren molde berberaz eginak dirudite. Eta ikasleek, zer arrazoi dute

proiektuaren aurka egoteko? Hara: "Desberdintasun gehiago egitea litzatekeelako". "Euskara interesgarria ez delako". "Hizkuntza bigarren mailako gauza delako". "Tanto en cuanto lo sepan en español, pues somos españoles". "Que se den las clases en castellano, que todo el mundo lo sabe y es el idioma oficial de la Universidad".

EUSKAL IKASLE ETA IRAKASLERIK BA OTE DAGO?

Inkesta horretan, eta prezeski lehen urteko ikasleei zuzendurik, galdera hau zetorren: "1976-77 ikasturtearen hasieran, asignaturaren bat euskaraz ikasteko posibilitaterik izan bazenu, horrelako talde batetan sartzeko zeure izena emanen zenukeen?" 63 ikaslek baietz erantzun dute. Jendeak ba du interesik, noski. Dena den, ba dirudi ezen datu honek fultseatu egiten duela errealitatea, zeren erantzun dutenen artean, euskaraz ongi hitz egiten dakiten 35 euskaldun baino ez baitago lehen ikasmilan. Ikusten denez, beste askok proiektua laguntzeagatik eman dukete baietza...

Edozein modutan, pentsatzekoa da, datorren ikasturtean berrogeiren bat euskaldun (hitzaren zentzurik osoenean) egonen dela guttienez lehen ikasmilan. Hauekin guztiokin poliki presta daiteke talde bat, asignaturak euskaraz lantzeko.

Irakasleen artean, gaur egunean plantilan dauden artean ez da problemarik, Geologia kenduta lehen mailako beste gaiak euskaraz emateko gai diren eta prest dauden irakasleak baitaude. Eta aurrerago joanez, ez balego ere, zergatik ez kontrata?

AZKEN OHARRAK

Inkesta honek gauza argigarriak erakutsi dizkigu. Adibidez, Bilbo erdaldun honetako Unibertsitatean (Zientzi Fakultatean hobeki esateko) euskaraz tutik ere ez dakitenak minoria direla (44,320/o). Harrigarria, ez da? Eta pozgarria, halaber. Besterik ez bada ere —eta ba da—, euskararen aldeko kanpainak euskara katakunbetatik ateratzea lortu dute. Euskara bizirik dagoela ikasten ari da jendea. Astiro bada ere, gure tren aurrerantz doa. Ai. Concordea balitz!

Bestalde, jenderik gehiena (83,350/o) asignaturaren bat euskaraz emateko proiektuaren alde dago. Hala ere, orain arte minoria baten nahia egin da (9,260/o-rena); eta egiten ari da. Noiz arte? Hori nolabait geure eskuetan dugu. Eskatu eta exigitu egin behar ditugu euskal ikastaldiak. Arrazoiak franko ditugu geure eskuetan.

Eta beste Fakultateetan zer? Ea, guztiok parte hartuz, oraingoz proiektua baino ez den asmo hau Unibertsitate osoan errealitate bihurtzen dugun!

Ramon Garai.

LEGE BERRIEN AURREAN

I. Gobernamentu berria, Lan Zuzenbide berria

Zuzenbideak bere funtsetan aldatzen ez diren adar batzu ditu, gobernamentu ezberdin eta kordokadura politikoen gaitetik. "Zuzenbide Pribatu" deitzen ditugun adarrek, pertsona pribatuen arteko harremanak zuzentzen dituztenek, aldaketa politikoetatik bizirik iraun dezakete. Baina hau, erregulazten duten giza harremanetako alde konkretua gizartearen antolakuntzan modu berezi batez ukitzen ez badute, "Zuzenbide Publiko" deitzen duguna, ordea, hau da. Boterea eta honen harremanak hiritarrek antolatzen diren arauak, eta estudiatzen dituzten harreman bereziengatik interes publikoa nagusitzen diren Zuzenbide Pribatuen adarrak, gobernamentu aldaketa batengatik sakonki ukituak aurki daitezke.

Azalpena bistan dago. Sistima politiko bat klase burrukari buruzko ideia determinatu batez oinarritzen den Gizartearen kontzeptio bat da Aldaketa politiko bat funtsean entseiu bat da Gizartea beste oreka puntu baten finkatzeko, edo Gizarte hori lehengo oreka puntu horretan beste modu ezberdin batez antolatzen. Gobernamentua aldatzen da A sozial klasea B sozial klase baten gaitetik jarraitzeko edo kentzeko, edo bestela bere lehengo egoeran irauteko beste moduz eratzeko.

Zuzenbidea kontzeptio berri horren giltza da. Botereak —berria edo berrestrukturatu— lege gorputz bat diktatu behar du Gizartea antolatzen duen ideia hori eratzeko edo jartzeko. Erizpide eratzailerekin zerikusia edukiko dituzten Zuzenbideko adarrak nahi eta nahiez ukituak izango dira. Lan Zuzenbideak ere, Sistima Kapitalistaren oinarria dena, kontzeptio berri hau sentituko du.

Gaur Gobernamentuko aldaketa bat ikusten ari gara. Honen agenteek klase burrukan dagoen indar koerlazioa ez dute aldatu nahi, iraunerazi baik. Diktadura Kapitalismoaren defentsa harmatua izan zen; "Erreformapenaren" Demokrazia bere defentsa "zibilizatu" izango da. Aldatzen dena Gizarte kapitalista eratzeko metodoa da. Estatuko Herri guztietako klase langileak 40 urtetan setiatuak edukiz gero, sistimaren ekonomi, sozial eta politik hondamena nabaria da. Sistima honek irudi berri bat behar du; kapitalismoaren iraunkortasuna ezin daiteke pentsa, orain eta hemen, mendebaldeko demokrazietako (testu)inguruan sartu gabe, demokrazia hauek —nahiz eta modu egongaitz batez— hazkunde ekonomikoarekin eta honen ondorio den bizimailaren gorapenarekin bere kontraesanak ekilibratzen ditu.

Beste moduz esanda: Frankismoa ipini zuten —beren autodefentsarako— Kapitale Haundiaren interesek, Europako estatu neokapitalisten antzeko "Ongitasunaren Estatua" behar dute. Eta "Ongitasun-

naren Estatua" muntatzeko-beste gauza batzuren artean-azaletik libre den eta politik eta polizi zapalkuntza jasaten ez duen Gizarte bat behar da, bai eta entrepresa mundu egoki bat ere, honen protagonista benetako ordezkariekin uler eta negoziatu daitezkeen eta ez Estatu eskusartzailearen zapaltzaile den lan eta sindikal politika. Neokapitalismora iragaitzak, kallean eta entpresan askatasun formalak exigitzen ditu. Lan Zuzenbidea ere, entpresako Zuzenbidea den neurrian, aldatu behar du.

II. Adolfo Suarezren Lan Zuzenbidea

Lan Zuzenbidea jadanik aldatu al da? Zer aldatuko da? Azken lan arauetako irispidea zein izango da? Irazkin batzuren bidez lan arautegia aztertuko dugu eta honetan politikak ukitzen dituen puntu garrantzitsu batzu: sindikal askatasuna, tratu kolektiboa, greba eskubidea, botatze librea, etab. Eta hau baino lehenago, arautegi horri eta azterketa honi zentzua emateko, zer ez duen aldatuko adieraziko dugu, hau baitakigu. Kapitaleak gobernatzeko iraungo duen bitartean, behintzat. Lehengo kontsiderapenek analysis elementu bezala balioko dute. Suarezren "Politik Aldaketa" interes kapitalisten defentsa hobe baterako metodo aldaketa bat bada —jesuitek bezala "Ad Maiorem Capitalis Gloriam" eginda dagoela esango genuke—, Lan Zuzenbidea, edozein sistimatan klase burrukan nahi den orekaren arautegi adierazpena da. Mendebaldeko herrietako Lan Zuzenbidea, kapitalismoaren eskutan dagoen entpresaren jabetza pribatuaren irautea errazteko egina da. Lehengo, langileei plusbalioak juridikoki kentzen kapitalearen pilaketa segurtatzen du. Beste aldetik sistima honen "iheste hodia" da, honela lehen iraultzailea egin ahalko luketen tentsioak kentzen dizkio. Kapitalearentzat plusbalioak gordetzea juridikoki egiten lortzen da, gure sistiman 1944.eko Lan Kontratu Legearen 1. 2. eta 6. artikuluek eta 1976.eko Lan Harreman Legearen 1.artikuluak irakasten diguten bezala.

III.— Inorentasuna eta plusbalioak

Betebehar hauek plusbalioen defentsarekin eta langilearen alienapenarekin zerikusia duten agerian ipintzen saiatuko gara. Inorentasunaren bitartez, "entrepresariak" edo entpresaren jabeak —hitz honen kapitalaren jabea ezkututzen da, elkarte bat edo pertsona bat izan arren— bere langileen lanaren fruitua sortzen den mementu beretik bereganatzen du, eta honen truke soldata finko bat eskaintzen dio, soldata honek ez du entpresariak duen irabazteko edo galtzeko arriskua... Betebehar honen "aingerutasun" hau kontutan hartu gabe argi ikusten da

nola entpresariak bere langileen soldata berak eskaintzen dituen artikulu edo zerbitzuen barruko kostu handiago bat bezala kalkulatu duen, eta honela kondizio normaletan kostu guztien adizioa baino gehiago irabazten du berarentzat, eta kopuru honi margin bat gehitzen zaio eta hau bere irabaziak dira. Irabazi hau —plusbalioa— entpresaria deitzen den izaki abstraktu horrek lortzen ditu, hau legitimatzeko lanik egin gabe, kostu hauetan gerentearen soldata sartzen baita, nahiz eta gerente hori batzutan entpresaren jabea izan gizaki bat eta entpresan bertan lan egiten badu. Irabaziak entpresa sortzeko kapitale batzu arriskutan jartzeagatik trukea da.

Eta arrisku horrek ez du legitimatzen? esaten dute sistimaren defendatzaileek. Kapitale inbertitua entpresak krak egiten badu galtzen da, gehitzen dute. Egia da, baina entpresa batek krak egitea, behar den moduan muntatzen bada, harrigarria da. Entpresa baten benetako arriskua krisaldi ekonomikoa da. Zer gertatzen zaio? Entpresak porrot egiten badu eta elkarte anonimoa edo limitatua bada —eta gehienak holakoxeak dira— elkarkideek haiek ekarritako kapitalea bakarrik galtzen dute eta kapitale hau formatzen zuten ondasunekin ezin bada entpresako zorrak ordaintzea, haiek ez dira erantzuleak; hau da erakunde modu honek duen entpresal arriskuen mugaketa, eta mendealdeko herrietan dauden ia entpresa guztiak honen modukoak dira. Eta entpresa gizaki bakar baten jabetza bazen? Kasu honetan, Arautegi (kode) Zibilaren 1.911. artikuluan jabeak bere "oraingo eta geroko" ondasun guztiekin erantzungo dituela agertzen da. Baina berak dituen ondasun guztiak ezin dira enkante publiko batetara eraman eta beren prezioa hartzekodun guztien artean banatu: Juzkapen Zibil Legearen 1.449.ean artikulua, zordunaren etxeko erabilerako ondasun konkretu batzu eta lan egiten badu soldata minimoa bahitzea debekatzen du. Entpresari indibidual bategi, bere entpresak krak egiten badu, entpresaren zorreatatik ez du larritasuna eduki behar bere ondasun ekonomikoak familia edo beste pertsonen izenean ipini baditu, gehien-gehienek egiten duten bezala... "testaferro" erakunde gorrotagarria erdeinari baina erabilia.

Hala eta guztiz ere, ikus dezagun langileei zer gertatzen zaien. Entpresak krak egiten badu, Ezinbesteko Langeldiketaren Segurantzako babesa dute, eta aldi batean beren kotizapenaren oinarritzko o/o75 garantitzen zaie. Baina epe hau bukatuko denerako beste enplegu bat aurkitu ez badute bizitzeko lanik gabe geratuko dira; eta hau ez litzaiteke harrizko gauza entpresak porrot egiten duten garaia, normalki, krisaldi ekonomikoaren garaia baita, eta orduan entpresariak ez dituzte lanpostuak eskaintzen.

Gainera, entpresariak krisisagatik hersteko mementuan ordaindu ez dizkien soldatak, galtzeko arriskutan daude; garantitzen zaizkien kopuru bakarrak, nahiz eta entpresa ordaintezin izan, krisisagatik edo botatze desegokiagatik indemnitazapenak dira; kasu honetan, entpresariak ordaindu beharrean "Instituto Nacional de Previsión"ek egiten du. Baina soldatekin ez da berdin gertatzen; entpresan bahitzeko gai diren ondasunak geratzen ez badira, langileek galtzen dute hori. Ondorioz, ez dituzte beren azken soldatak kobratuko, ez eta mementu horretan zor zaizkien aparteko (extra) soldatak eta oporketaren portzentaia, eta beste arazoengatik entpresak zor dizkien soldata diferentziak. Egoera hau konpontzeko 1976.eko beranduko Lau Harremanetako Legea etorrida —Frankismoaren eta entpresal ordaintezinak 40 urtetan pasatuz gero— honekin "Fondo de Garantía Salarial" ipini nahi da entpresariak ordaindu beharrean Fondo honek ordain dezan, baina urte bat iraganez gero Fondo hori ez da funtzionatzen, horretarako behar diren arauak egin ez baitira. Nahiz eta krisis ekonomikoak herste eta ordaintezin asko ekarri.

Alderantziz, entpresa ondo dabilenean, eta hau oso normala da aurrikuspen txar bat edo krisis ekonomikorik ez bada, langileek beren soldatekin konformatu behar dute, entpresariak dituen etekinetan partehartu gabe. Hitz batez, ezezko arriskutan bakarrik partehartzen dute: lana galdu edo zor zaizkien soldatak galdu, entpresak krak egiten badu; ez baiezko arriskutan: beren lanak sortu dituen plusbalioetan esku hartzea, entpresa ondo dagoenean. Hau da "Inorentasuna" betebeharrak hau lege soiletatik aztertzea edo honen ondorio praktikoa ikustearen artean dagoen ezberdintasuna.

IV.— Menpetasuna alienapenaren forma bat

Plusbalioak gordetzen dituen lan tratua biren betebeharrak menpetasuna da. Honen bitartez langilea bere lan energia entpresariaren aginduen artean jartzera engaiatzen da, honek, eta bien arteko paktatuen arauera, nahi duen bezala erabil dezan. Bere eskuak entpresariaren agindupean jartzea bezala da, eta honek entpresak nahi duen bezala eratzeko eskubidea gordetzen du. Honela, entpresan boterea dutenak entpresaria eta honen apoderatuak dira. Entpresariak errentagarriak irudituko zaizkion produkzio metodoak hautatuko ditu eta etekin gehiago emango dizkieten lan sistimak eta orduak ipiniko ditu, nahiz eta bere langileei kalte gehiago egiten dietenak izan. Eta azken hau ez da kasualitatea, kompetentzia librearen hastapenak entpresariari, konkurrente eta kostu gehien gutituko dituen entpresal erakunde bat exigitzen baitio. Beste aldetik "menpetasuna" ere Gizarteari zer eta nola eskaini, zein artikulu edo zerbitzu salduko ditu, zer kondiziotan eta zein karak-

teristikarekin hautatzeko eskubidea entpresariarentzat gordetzen du. Guzti hau klase herritarrek dituzten beharrian edo erosteko ahalmenentzat aproposena izan ala ez ez du garrantzirik: etekin haundienaren legea da ardura duena, eta ez entpresaren sozial baliagarritasunarena.

Hitz batez, "menpetasuna" k plusbalioen lortzea segurtatzen du, eta entpresariaren eskutan boterea irautea garantitzen du, eta hau langilearen alienapenaren bizkarretik, bere lan ahalmena saldua ikusten baitu, bere lan energia nola erabiltzeko edo non aplikatzeko erabakietan partetik hartzen ez duenez gero; langilearen esplotakuntzaren bizkarretik, entpresariari errentagarritasun gehien eskaintzen dion lan arautegi bati loturik; langilearen dominapenaren bizkarretik. Gizarte baten partaidea bezala erlatiboki hauta ditzakeen artikuluen kontsumatzaile pasiboa, kontsumu gehienaren alde bere premia naturalak aldaratzeko propagandak maneiatzen baititu. Honela, "menpetasuna" k entrepresa gainditzen du eta Gizarte guztiaren gainera erortzen da, eta langileek, entpresariak bere saketan haunditzeko entrepresa hola maneiatzea estudiatzen duenean, ezin dute honen merkatal erabakiak kontrolatu.

BANKA ETA AURREZKIKO LANGILE ABERTZALE SOZIALISTEN KOORDINATZAILEA

Euskadin, Banka eta Aurrezki mailan dauden talde eta mugimendu ezberdinekook, Euskadi beste nazioekiko (ekonomikoki eta soziopolitikoki) berezia dela, kontsideratuz, berezitasun hauei, erakunde eta desarroilo bat dagozkiela uste izan dugu.

Horregatik, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lankide batzuk batzarre batzuren ondoren, herri eta klase bezala ditugun arazoak konpontzeko, Banka eta Aurrezki mailan, langile abertzale sozialisten koordinatzailea sortera ezin dugu.

1.— KOORDINATZAILE HAU ZERGATIK SORTZEN DEN?.

—Hego Euskadin banka eta aurrezki sektorearen langile abertzaleengan erakuntz hutsune bat dagoelako.

—Behar hau, azken komenioetan, argi ikusia izan da, joera oso estatualista izan baita. Jadanik antolaturik dauden taldeen joera honek, batzutan, beraien partiduzko interesagatik gure sozial eta nazional arazoak menperatu egin dituzte.

Ezker abertzaleko langileak, klase eta herri askapenaren alde, burruka egiten duten langileak; eta horretarako, asanbladalar prozesu bati jarraituz eta indartuz lantoki guztietako elkar laguntza ahalbidetzen duten langileak, koordinatzeko Banka eta Aurrezki mailan.

—Nazional eta klase arazoak, loturik egonez, batek ez du bestea baino garrantzi gehiagorik, biak Euskadiko langileoi baitatortzigu. Soziologi eta geopolitik marko ezberdin bateko langileak garelako ez dago zalantzarik. Marko honek berezko gauza hauek ditu: historia bat, hizkuntza bat, kultura bat, egiteko etorkizun bat, etab.

Gauza hauek nazio bat bezala itxuratzen dute. Nazio hau sistema kapitalistaren menpean dago eta klaseez zatiturik dago espainiar eta frantziar estatuen menperapenean. Honegatik gure nazioa klase burrukarako marko espeziifikoa da.

—Koordinatzaile hau, politik erakunde eta alderdietatik independentea da.

3.— KOORDINATZAILEAREN FUNTZIOA.

—Langileen gogoaren organorik errepresentagarriena asanblada denez gero, hauxe indartzea. Entrepresan eta Estatu mailako asanbladetan aukeratu-tako ordezkariek, eta entrepresan eta sektoreen arteko koordinatzaileak ezagutzeko, urte askotan zehar, "bertikal" delakoaren aurka egin ondoren, oraingo zentrale sindikalen protagonismoa ezin dezakegu onhar (berauek orain, protagonismoa kendu nahi dute eta geure errepresentagarritasuna atribudituz, negoziatzerakoan ordezkatu nahi gaituzte totalki edo partzialki).

V.— Aldaezina

Hau guztiau da segurtasunez aldatuko ez dena, Lan Zuzenbideak babesten duen kapitalismoaren funtsa delako. "Inorentasun" eta "menpetasun" aren gordintasuna leun daiteke, Europako sozialdemokrata diren herrietan egiten den bezala, baina hau funtsa iraun erazteko, nahiz eta etekinetan partzuergoa eskaini eta "kogestio" deitzen den politikan erabakiak hartzen permititu. Edozein kasutan lan tratua hastapen esplotatzaile, dominatzaile eta alienatzaileak osorik iraun eraziko du; eta edozein modutan alternatiba kogestionatzaileak guk orain hasiko dugun baino Demokraziako fase aurretuagoetan bakarrik eman daitezke.

Aldatuko dena —duela bi hilabete lehen pausoak eman dira— lan gaietan Estatuko esku sartze itotzailea da, eta bai sistema kapitalista salbatzeko Lan Zuzenbidea "iheste hodia" bihurtzen duten orain arteko erabilitako teknikak ere. Baina hau hurrengo kapitulu baten gaia izango da.

J. Alonso

—Asanbladalar prozesua dagoen legalitatea apurtzeko, etengabe burruka egin behar da, eta Euskadiko langileen interesei dagozkien legalitatea egin behar da.

—Entrepresariekin hitz egiteko edo langileek erabakitzen duten beste gauzaren baterako, asanbladalar ordezkariek bultzatzea.

—Banka eta Aurrezki langileen artean, gauza hauek desarrolatzea.

—Klase eta nazional kontzientzia.

—Euskal eta nazional kulturaren berreraikuntza.

—Elebitasun batetik euskararen normalpen batera joatea.

—Burjeseriak esplotatzen duen eta gaizki ulertua den nazional zentzu batez, langileen batasuna ez apurtzen saiatzea.

—Euskadiko langileen, beste sektoreen eratzailer edo asanbladalar mugimenduekin harremanak finkatzea.

—Espainiar Estatuko beste herrietako langileekin koordinatzea, hauxe elkar berdintasunezko eta independentziako arauz eginez.

—Espainiar Estatuko eta mundu guztiko langileen interesekin identifikapenak benetakoa izan behar du.

—Batasun honek, ondo definituriko eta komunitate ezberdin baten langile esplotatzen bereizkuntzak ez ditu ito behar. Euskal langileen mugimenduaren barnean, nazional arazoa xixkatzea politika oso definitua da eta nazionalitate zapaldu baten interesen aurkakoa. Batasuna, elkar ezagutzen eta errespetuan datza.



TERRORISMOA

Terrorismo hitza modan jarri da aspaldion. Terroristak noski, terrosimo egiten dutenak izaten dira, terrore bidez bere helburuak lortu nahi dituztenak. Hala ere euskaldunok, hiztegiak izanik, Larousse hiztegiaren terrorismo hitzaren esan gura begiratu dugu, badaezpada ere. Eta hauxe dakarkigu: Bortxakeriazko gobernamentua. Bigarren hitza guztiok dakigu zer den, eta lehenak, ez badakigu ere, noiz edo noiz min egin digu, baina minaren zergatia aztertu behar dugu. Hona zer dakarren hiztegiak: bortxaren abusua, neurrigabeko bortxa. Terrorismoa beraz neurrigabeko bortxaren gobernamentua da. Hori eta ez besterik da terrorismoa.

Neurrigabeko bortxaren gobernamentua egon da eta, egon, dago herri honetan azken 40 urte hauetan. Neurrigabeko bortxaren abusuak herri honetako kargu publiko guztietan, patxada handiaz kokatuta eta kokaturik egon dira.

Bortxakeria praktikatzeko eta bortxakerizaleen lagunen patrikak eta sakutak betetzeko beti ibili dira, batzutan ixilka, bestetan agerika, delako ordenu publikoa zaintzen eta kontrolatzeko asmoz. Bortxakeriak denetarikoak izaten oi dira. Boltsako baloreen bortxakeria, kapitalen ihesteen bortxakeria, lurraren espekulazioaren bortxakeria, prezioen bortxakeria, herri baten nortasunaren bortxakeria, atmosferako satsaduraren bortxakeria, eta abiada honetan datorren urterarte segituko genuke, baina ez, ez dugu egingo, debekaturik egon ez arren, zeren debekaturik dagoena, zera baita, terrorismoaren aldeko apologia egitea, eta guk aldiz terrorismoa salhatzen ari gara.

Italiako kasua eta gurea ez direla berdinak esaten da. Ni ez nago konforme, erdi gezurra delako, eta nik uste Martin Villa eta Italiako ministroa, mirakuluzki, nirekin daudela. Italiarrek ez dute Euskal Herririk, hori behintzat egia da, Italiarrak, aldiz, demokrazia batetan bizi omen dira, eta hemen, dakigunez, andre hori lurpean egon eta gero airean dabilkigu oraingoan. Baina Italian zoritxarrez, autoestrada eta autobideak hirugarren etxebizitzetako leihoretatik zehar ere, iragaten dira. Iragate hau aski agerigarria da nahiz eta simple eta sakona izan. Halaber moeta guztietako eskandalu bitxiak egon dira Italian, gustu eta eritzi guztietarakoak. Italiako mafia, baina benetakoa, filmetakoa, kristau demokraziale beroena izan da beti. Hau zela eta, Napolin tratu ederrak eginik zeuzkaten aspalditik. Zu eman eta nik eman, zuk gorde, eta nik gordeko zaitut. "Orube horik udalarenak direla?... Bai zera, klasifikapena aldatuko dizut, ez kezkarik izan, baina eliza bat egin beharko didazu, honela herriarentzat, "Utilita pubblica signore", nolabait dela esan dezakegu".

Italian ere orduan, Bilbo asko dago. Demokrazia batek eraikitako Bilbo eta Euskal Herri guztiak terrorismoaren kontrako burrukan altxatu dira.

Hau oso larria da, oso. Horretarako Europako "bederatziak" terrorismoaren kontrari elkarrekin ari dira. Ministroak, Londresen batu dira: Gai teorikoari buruz, terrorismoa, edozein ideologian oinarritako terrorismoa, bidegabekeria dela esateko ados jarri dira. Biltzarrea bukatu ondoko ageri ofizialaren arauera, "kriminaltasun berezi honek ez digu arazo berezirik sortzen"??? "horregatik mugaz gainetik ere, elkarrekiko ekintzak gero eta gehiago indartu behar ditugu". "Terrorismoa aurretik gelerazteko, berari dagozkion tratamendua egingo diogu eta horretarako errepresibide guztiak erabiliko ditugu". "Hemendik aurrera harmak eramateko baimena askoz kontrolatuago egonen da, eta poliziak soilik eraman ahalko dituzte".

Mesedez irakurle, irakurtzen ari zatzaizkidan hori, ez barrerik egin, nik asmatu ez dudana gauza serio bat aztertzen ari dira ministroak, eta ez dira Arrankudiagan edo Larrazabaleko txakolindegian bildu gero, baizik eta Britainia Handiko hiri nagusian. Tamalez bat falta da, Martin gurea. Txutxu-mutxu eta txitxi kakaren beldurrez ez dute orain sartu. Datorrenean sartuko dute, eta Martinik ez badago Pello Joxepe sar dezakete.

Ageri ofizialek dioskutenez, gai honeri buruzko harremanak sakonagoak izanen dira. Ministroak prestaturiko lankidetasun berri hau ez da informazio trukaketan soilik geratuko. Frantses poliziek, Alemanian, azterketak eta estudioak egingo dituzte, Italiakoek Irlandan eta abar. Honela ikusiko dute frantsesek zergatik Belgikan, bertako I.B.M.k Brusselako udalari, urteroko alokairu gisa, 150 F.B. pagatzen dion. Alemanek, Hachette-k, Frantziaren publikatzen den o/o 70, zergatik kontrolatzen duen argi ikusiko dute. Italiarrak Ipar Irlandan dagoen egoera latza nondik datorren konturatu dira eta Espainolek, Alemaniara joatean, herri horretako aberastasun guztiak nola eta zer medioz nazi faxista guztien eskuetan kontserbatzen direneko formula aurkituko dute.

Neurri oso egokia deritzot. Berriro ere Ministroekin eta poliziekin batera nator ni. Eta polizien laguntasun eta herkidetasun honetan nagoenez, beste polizien hitzak, Bilbon izan zen komisari nagusiaren hitzak aipatzeko aprobetxatuko dut.

"Terrorismoaren arazoa, arazo politiko bat da, ezin daiteke terrorismoa garaitu, politiko eta guztiz politiko diren kausak deuseztatzen ez badira". Eta hori Larrazabalen egia ba da, Londresen ere egia izango da.

T. Trifol

frankismoaren kumeak

Boterea lortu zutenean, edo eta boterearen azalezko errepresentanteak izatea lortu zutenean, ezin zezakeen inork pentsa, ez Suarez-ek eta ez "PNN-en gobernu" deiturikoak estatuaren agintean —bai, agintean, zeren ez baitute inoiz gobernatu, agindu baizik— denbora gehiegi iraunen zutenik. Baina ez da honela izan, eta, orain, urtebete iragan ondoren, guztiak harriturik utzi gaituzte; hona hemen, non Suarez jaunak demostratu duen erreinu honetako maniobrero trebeena bera dugula. Halaber demostratu du —eta dute, ingurukoek ere partaide baitira—, hainbeste finkatu dela boterean, non ez duen berai inolaz ere utziko. Honen haztarrena dakusagu behintzat. Hemen datza frankismoaren kumeek egindako tranpa, jokoa eta sasikeria.

Egun, hauteskunderi buruzko inkesta guztiak, garaile gisa Suarez eta beronek komandatzen duen "Unión de Centro Democrático" ematen dute. Garaipean lasaia, erraxa, boterearen hari guztiak menderatzen eta maneiatzen baitituzte; honek, noski, posibilitate guztiak ematen dizkie. Beraz, antidemokratikoki jokatzeko dute, hori baita beraien legea eta helburua; kakoa, beti boterean mantentzea. Oraingo honetan demokraziaren ateak ireki behar omen dituzte! Ez ote dugu elkar ezagutzen, ba?

Ikus dezagun —gainetik guttienez— zein den Suarez, eta halaber zer den berak gidatzen duen untzia —UCD—. Suarez-en karrera politikoa guztia Mugimenduan egin izan da, Herrero Tejedor-ren baitan hasitakoa, haren begikoa baitzen. Betidanik ministerioetako bazterretan aritua, beharrez ezagutuko ditu klase politikoa gorabeherak eta, noski, berauetan aski esperimendatua izanen dugu. Mugimendua idazkaria izan da eta, jakina denez, Mugimendua diktaduraren ardatz inportanteenetariko bat izan da. Hemen du Adolfok ikasia bere katixima, hemen izan du bere eskola eta heziketa. Zer da, ba, Suarez? Funtzionari bat, frankismoaren funtzionari irmo bat; diktadurak eta diktaduran hezitakoa eta elikatua.

Untzia —Unión de Centro Democrático— zertzeko, atzera begiratu beharra dago. Haseran, PPa —Partido Popular— izan zen sortzailea, Pio Ca-

banillas eta Areilza burutzat harturik zutela. Ingu-ruan barreiatu ziren zenbait talde ttiki-biltzea eta bideratzea zen haien asmoa, bertako taldeak hauk izanik: kristau-demokratik —batzu—, liberalak, sozial-demokratik eta, nola ez, hainbat frankista independente (?).

Aliantza guzti honen asmo nagusia "Equipo Demócrata Cristiano"-a barnean sartzea zen. Ezin izan dute hau lortu Gil-Robles-ek ipini dituen ozto-pengatik batipat. Eta azkenik, guztia gobernuaren alternatiba batetan bihurtu zaie. Dena den, lotsagarriena zera da: frankismoaren artaldetik irtendako (?) hainbat pertsonak orain zentristen papera egin nahia. Edonork daki, Espainiak Estatuaren zentrua kristau-demokratik direla eta inoiz ere frankista funtzionariak. Oroit gaituzten Fraga-k esaten zuenaz, hots, "ni naiz zentrua" Bai zera! Fraga zentrua eta Suarez komunista!. Dirudienez, basati guztiak azken aldi honetan zentruarekiko amorraturik ditugu.

Kontextu guzti honetan ulergarriago egiten zaigu Areilza jaunaren joera, zeren gobernuak CD-a uztartu badu, probetxagarria izan dadin izanen da bederen. Garbi zegoenez, Areilzarentzat muntaia guzti honek bigarren maila batetara pasatzea suposatuko luke. Han dela eta, kondeari ez zitzaion "komeria" gustatu eta hanka egin zuen. Eta ez, noski, kondea oso demokrata delako, bere aurpegi "apur bat demokratikoa" gehiago lohituko litzaiokelako baizik.

Arestian esan dugunez, gobernuak prestatu duen muntaia helburu garbi bat dauka: boterearen hariak inolaz ere ez galtzea. Horrexegatik permititu du oligarkiak, ematen ari den aldaketa ttikia eta ez, noski, demokraziazeleak direlako, urtetako politika diktatorialarekin oso ondo frogatua baitute zeintzu diren.

Esan beharra dugu, modu berean, hemen jokatzea ez dela originala, bestela eman dezagun begirada bat munduan zehar, eta hainbat kasu berdin edo berdin xamarrik ikusiko ditugu. Adibidez, Frantzia UDR, Mexiko PRI etab.. bakoitza, noski, bere konnotazioekin.

Kale guztietan ikusi ditugu UCD delakoaren zenbait iragarki, hauen artean bi aukeratu ditugu:

Lehena: "El Centro es la Democracia". Zentrua baldin demokrazia, eta gobernu guztia zentrukoa baldin badugu, galdera bat datorkigu burura: non demokrazia? Urtebete egin duen gobernu batek —oraindik, ez dakigu irauenen ote duen—, ez die Espainiako herriei eta bertako populazioentzat kasik soluziorik eman. Gure Euskal Herria lekuko. Guztia izan da adabakiak ipintzea, bitartean boterea mantenduz. Ekonomi krisia gogortu egin da, nazio errebindikazioak ez dira entzuten, amnistia

tantaka datorkigu, etab... Guk dakigunetik, gobernuak erabili dituen metodoak, frankismoari ikasiak dira, eta hau garbi nabari diezaiokegu. Ia bi urte dira "prozesu demokratiko" batetan sarturik gaude la, prozesu luze eta negargarri batetan; areago oraindik: faltsua dena. Zer du herriak irabazi prozesu honetan? Gutti, ia ezer ez. Zeren dakusagunagutik boterearen zentru guztiak jende berberak baititu harturik, eta boterearen zaindarien berdin tratatzen baitituzte populuzioen errebindikazioak. Orduan, non demokrazia? Oligarkiaren babesean dagoen klase politikoak, bi urte ukan ditu demokrazia ezartzeko eta beti prozesu batetan ukan gaitu. Noiz, ba, demokrazia?

Bigarrena: "La Vía segura a la Democracia". Norentzat segurua? Inoiz baino burruka gogorragoak ezagutu ditugu; inoiz baino gehiago lurperatu dute jendea; eta hala eta guztiz ere, bide seguruen omen. "Seguruena baldin badu ere, berau hilerrietatik pasatzen da sarri: maizegi.

Duela bi urte hil zen Franco; geroztik boterea beraren kumeek hartu zuten. Berauek orain, hauteskundetara deitzen gaituzte, beraiek ezarritako lege batzuekin, beraiek inposatutako metodoaz; beraz, neurria eta araua beraiena da, eta hortik ateratzen den edonori, burua makur erazi egingen diote: beti egin duten moduan.

AP eta UCDren arteko diferentziak, ez dira handiegiak, egia esan. Ba dirudi, batak gaiztoaren papera hartu duela, bestea moderatu gisan gera dadin. Bata "gaiztoa", bestea "ona". Bata frankismoa, bestea neofrankismoa; antzekoak behintzat. Haien artean ematen diren tira-birei, esaera zahar hau aplikatu diezaiekegu: zozoak beleari burubeltz.

joanes goibela


La vía
segura a la
democracia.



Democracia Cristiana • Independientes • Social Democracia
Partido Popular • Liberales


UNION DE
CENTRO
DEMOCRATICO

Dakigunez UCDren bide segurua, hilerrietatik pasatzen da sarri: maizegi



gure psykhiatrikoen egoera erogarria



Umeen egoera, zaharrek dutena baino hobea ez da erotegi hauetan.

Maiatzaren 17an, Bizkaiko hiru erotegietan lan egiten zuten hamasei M.I.R. —“Médico Interno de Residencia”— hertsaldi batetan sartu ziren, Bilboko Mediku Kolegioen bulegoetan. Lerro hauk idazten ditugun uneetan, mediku hauek hamabost egun daramatzate egoera honetan. Zergatik hartu dute protesta joera hau? Non ditu bere sustraiak?

Sustraiak aipatu ditugu. Luze, sakon eta sendoak dira eta Euskal Herriko lurpean urte luzetan hazi dira, ixil-ixilik, arazo honen sustraiak. Pertsona normalen problemak ezkutatuak izan baldin badira gure herrian, zer pentsa “normalak” ez diren pertsonenak? “Pertsona” aipatu dugu oraingoan, baina Zamudion, Zaldibarren eta batez ere Bermeoko erotegian bizi diren gaixoen gaurko egoera larria ezagutu ondoren, pertsonak bezala hartuak direla zalantzan jartzen dugu.

Hemen dago arazo honen sustrai garrantzikoena: mediku hauek protesta bidea aukeratu baldin badute, eroak diren pertsonak defendatzeko izan da. Bizkaiko Diputazioaren aurrean maiz egin


dituzten salaketek mediku hauei beren lanpostuak galerazi dizkiete. Medikuek hauen kaleratze aitzakia Apirilaren 5ean egindako gutun bat izan zen. Lehen egindako protesta agiriekin oinharri handiak zizutzelakoan, Diputazioak gutun hau aurkitu zuen kaleratzeko aitzakia bezala. Gutun honek, ordea, Zaldibarreko langileen arazo bat besterik ez zuen agertzen. Gutun honen bidez, Zaldibarren lan egiten zuten 49 erizain, mediku eta beste langilek “Madre Superiora”ren dimisioa eskatzen zuten bere “jefe de personal” arloan. Diputazioak, gutun hau hartzean, langile hauen kontra zigorbidea aukeratu zuen: mediku bat kaleratu zuen, beste hiru medikuri beste mailetara igateko posibilitateak hiru urtez galerazi dizkie, bi sozial laguntzailerik soldata eta lana bi hilabetez kendu dizkie, bi sindikal ordezkari kaleratu ditu, beste bati 21 egunez lana eta soldata kendu dizkio eta beste izenpetzaile guztiei soldaten zazpiko bat kendu die.

Zigor hau ezagutzekoan, beste erotegietan lan egiten duten langileek solidaritate mugimendu bat

sortu dute. Zaldibarren jazotakoa arazo handi eta sakon baten agergarri bat besterik ez da. Zigorbi-deez, Diputazioak langile "gorri" eta errebindikatzailak kaleratu nahi izan ditu. Urte luzetan bere zerbitzuan ixilki eta apalki egon diren medikuak, berriz, funtzionari bihurtuz saritu nahi ditu. Orain arte, langile hauen lan kontratuak urtero berritu behar izan dira, honek dakarren seguritate ezarekin.

AUSCHWITZ BIZKAIAN DAGO

1976. urteko Abendua: Diputazioaren Idazkaria Bermeoko erotegira heldu zen, zalantzan jartzen baitzituen hango langile eta gaixoek egindako protesta idatziak. Minutu batzu erotegiko geletatik ibili ondoren, Idazkariak handik arin irteteko beharra izan zuen, hango kondizio lotsagarri eta tamalgarriak ikusi bezain laster. Handik kanpoan, hala dio



Aurreko fotoan ikusi duzuen ume bera

Ordezkarri jaunak: "Horrelakorik ez nuen espero. Hau Auschwitz da..."

Eta baieztapen hau ez zen gehiegizkoa. Bermeon egon diren guztiek gauza berbera diote. Han lan egiten dutenek agiri bat egin dute eta hona hemen lan honetako hainbat zehaztasun harrigarri:

Bermeoko erotegia 1890. urtean egindako etxe hotz, handi eta zahar bat da. Gartzela baten itxura du. Bi metrotako orma batez inguratuta dago eta erdian, patio handi batetan, gaixoak etzanda edo eserita egoten dira ordu luzetan. Erotegi edo "ospitale" honek 350 ero ditu gaur, bost mailatan banatuak: Zaharren edo Geriatri saila; Ume saila; Irtenbiderik ez dutenen saila; Oso gaizki daudenen —"Agudo"en— saila eta khronikoen saila. Alkoholikoak tratatzeko orain arte zegoen saila desegina izan da, "mediku bereziturik ez baitago".

Geriatri edo zaharren saila. Hogeiren bat dira sail honetan dauden gaixoak. "Khronikoen" sailetik helduak ditugu batzu. Kotxe zaharrak bazter



"Horrelakorik ez nuen espero. Hau Auschwitz da..."

batetan utziak izaten diren bezala, Bermeoko zaharrek geriatri saila osatzen duen 50 m²tako gela bakarrean baztertuak izaten dira. Kalefakziorik gabe, hotz handiz, gela honetan egoten dira orduak, egunak, urteak, bakar-bakarrik gehienetan —nork kontu egin ez baitago—, beren aulkietara lotuta batzutan, minik har ez ditzaten esertokietatik erortzean. Zaharrak eta gaixoak direnez gero, beren "beharrak" komunetara heldu baino lehen egitea ez da gauza arraroa. Gela bakar honetan egiten dituzte beren bazkari eta afariak. Patio txikira jaisteko, zahar gizaixo hauek eskuheltze gabeko eskilara batetatik jaitsi behar dute eta noski, bi aldiz gutxienez hezur hausteak izan dira, oztopo egin eta eskilaretatik buruz behera erortzean. Hotza handia dela eta logelan —lo egiteko hogeit hamar egiteko gela bakarrean— zahar hauek jantzirik lo egiten dute askotan. Hala ere, pulmoniaz hil omen dira batzu. Gela honen garbiketarak, bestalde, laurogei urtetako zahar batek egiten ditu.

Nahiz eta lan gogor bat eginez Bermeoko erotegian lan egiten dutenek hutsune guztiak konpontzeko aleginak egin, ez medikuek ez laguntzaileek ezin dituzte 350 gaixoren beharrak begiratu. Geriatri saila zaintzen duten mediku eta sozial laguntzaileek "agudo" mailakoak ere beren babesean hartu behar dituzte askotan. Goizeko 9etatik arratsaldeko 6ak arte erizain bat ere han egoten da. Goizean eta arratsaldean laguntzaile bat ere izaten da.

Sendabideak: gaixo zahar hauen nekeak "sendatzeko" erabiltzen den bide bakarra, sendagaiena da. Sail honetan, gainera, ez dago gaixo gehiagorik hartzea, ez lekurik ez erizainik ez baitago. Psikogeriatricariarik ez dago Bermeon.

UME SAILA

Umeen egoera, zaharrek dutena baino hobea goa ez da erotegi honetan. Hogeitahamarren bat



Bermeon bezala, Zaldibarren oso toki gutxi dute gaixoek

neskamutil 50 m2tako gela batetan bildurik egoten dira. Umeen adina urte batetatik hamalau urtetara doa. Umeak subnormal sakonak dira gehienak edo eta epilepsia, psikhosis eta beste hainbat kalte dute. Ezer egiterik ez dutelakoan, hazkuntza eman eta garbiketak egin behar zaizkie. Beren artean kolpeka has edo beren buruak zauri ez ditzaten, eskuak atzean edo zutabe batetara loturik jartzen zaizkie. Berez ager daitekeen agresibitatea, egoera honetaz handitua eta sakondua izaten da. Umeen saila bi bizitza osatzen dute eta, igantresnarik ez dagoenez gero, batetatik bestetara igan edo jaisteko, besotan hartuak eta eskilaratik pasatuak izan behar dira umeak. Egoera larri hau gehiago sakontzearen, udan maiz urik ez da egoten umeen sailean. Umeen logelan ez dago berogailurik.

Mediku languntzaile batek, sozial languntzaile batek eta, teorikoki, hamazortzi andereño languntzailek lan egiten dute sail honetan. Gero, errealitatean, andereño hauek lau pertsonatako hiru txandatan zatitzen dira...

Sendabidea, sail honetan ere, sendagaiak ematea da. Bide honetatik kanpo, ez dago ez psikhikoki ez fisikoki hobetzeko ekintzarik. Ume hauen helburu bakarra toki honetan "egotea" da eta, hamalau urte betetzear "khroniko" edo "finalen" artera pasatzea. Oso gutxitan beste toki hobe batetara joaten dira. Bermeoko ospitale hau inork nahi ez dituen ume eta nagusiak "onhartzeko" eginda dagoela garbi ikusten da.

"FINAL"en SAILA

Irtenbiderik ez duten gaixoak "Final"en sailean sartuak izaten dira. Bertan ikus dezakeguna sinsegaitza da, Gure Euskal Herrian eta 1977. urtean Bermeoko "finalak" bizi diren egoera errealitate izatea lotsagarria da. 50 m2tako gela batetan 50

pertsona biltzen dira, ia gainezka, Auschwitz-en egindako argazki beldurgarriak gogora eraziz. Eguraldi ona baldin bada, 50 gaixoak 50 m2tako patio batetara irteten dira, erdilo etzanda egoteko, bilutsik batzutan. Logelak bi dira, oso txikiak, oheak bata bestearen ondoan. Gabaz, berrogeitahamar pertsonak giltzapean gelditzen dira bi logeia hauetan, inor zaintzeko barruan gelditzen ez delarik.

Mediku batek, erizain laguntzaile batek eta moja batek gaixo hauen zaintzen dituzte. Sendabidea... farmakoak dira, beti bezala. Klinik historietan, hamar urtetako hutsuneak aurkitzea ez da arraroa, gaixo hauen ez baititu bereziki inork ikertzen.

Hiru sail hauen —zahar, ume eta "final"en sailak— ospitaleko beste alderdi guztietatik irratirik gelditzen dira.

ALKOHOLISMO SAILIK EZ...

Alkoholismoa Euskal Herriaren gaixotasun handiena dela ba dakigu. Ofiziaiki askotan Euskal Herriaren kontra erabilia eta bultzatua izan dela esatea ez litzateke gehiegi esatea izango. Hala ere... Bermeon orain dela denbora gutxi arte zegoen alkoholismo saila deuseztatua izan da, mediku berezituak falta direla eta... Alkoholikoak, orain, tratamendu berezi bat hartu beharrean, beste "agudo"en artean sakabanaturik daude. Zerbait senidek eta alkoholismoaren kontrako elkarteek egindako eskeek eta oharrek ez dute ezertareko balio izan.

Agudoen egoera bereziki aztertuz, hauek bi "erigeletan" sendatuak izaten dira, nahiz eta erizaindegi hauen beren lana betetzeko tresna egokirik ez izan. Behin batetan bi "labortherapi gela" zeuden, baina han egindako lanak "irabazkizunik" ez ematean, kenduak izan ziren. Orain, beste gela



Beste bi eroetxeetan dauden akats, hutsune eta ustelkeriak ezkutatzeko egin zen Zamudioko "hotela"

*Beren artean kolpeka has edo beren buruak zauri
ez ditzaten eskuak atzean edo zutabe batetara
loturik jartzen zaizkie*

batetan, gaixoek kartoizko kaxak egiten dituzte, "tratamendu" eran...

Hiru mediku laguntzailek zaintzen dute agudoen saila, beste hiru sailak une berean zaintzen ditzuten artean. Beste bi mediku, bi moja eta terapia-kiak bi laguntzaile ere egoten dira.

Sendabidea: beste sailetan bezala, hemen ere pharmakoen bide bakarra erabiltzen da.

KHRONIKOEN SAILA

Berrehunen bat gaixo bizi dira sail honen barruan. Gehienek ospitalean lo egiten dute, beste gutxi batzuk Bermeoko pentsio eta etxeetan lo egiten duten artean. Erotegiko logelak handiak, hotzak eta berogailu gabekoak dira. Gabaz, logela batzu hertsia egoten dira barruan gerta daitezkeen istripuak —sua, elkar jotzeak, edozein eratako psikik edo fisik atakeak— isolaturik eta laguntzarik gabe geldituz. Orain dela denbora gutxi, gaixo bat leiho batetatik gabaz erori zen eta ordu t'erdiz inoren laguntzarik gabe zaurituta egon zen. Garbitasun aldetik, astean behin dutxa bat egiten da. Dutxa hau 45 gaixok osaturiko taldetan egiten da, hiru iturriren azpian. Dutxa hauetan, jakina, ez dago berogailurik.

Arropa kontuan, gaixo gehienek ez dira beren jantzien jabe. Gehienek arropa erabiliak daramatzate. Garbigailu arruntenak ere falta zaizkie. Gaixoak, Bermeon, "berrea" den gauzarik ez du eta gauzarik ez honek, noski psikologi aldetik ondorioak dakartza. "Berdintasuna", "uniformismoa" da nagusi. "Subjektu"rik ez dago.


Sendabideak, hemen, "aberatsagoak" dira: lanterapia barruan inprimategi bat, aroztegi bat, saskitegi bat e. a. ditugu. Pastilak dira, hala ere, erabilienak. Gaixo batzu urteak eta urteak egoten dira pastila berberak hartzen.

ZALDIBARREN ERE, EGOERA LARRIA

1923. urtean, Bizkaiko Diputazioak Zaldibarreko mainuetxea erosi zuen, emakumeentzat erotege bat bertan antolatuz. Gaur 330 gaixo biltzen dira etxe zahar hauetan. Askok 20 urte pasatuko dituzte etxe hauen ormen artean. Bermeon ikusitako zenbait zehaztasun tamalgarri Zaldibarren aurkituko dugu berriro, nahiz eta beste zenbait arloan egoera hobea izan. Ez da zaila, benetan, Bermeoko larritasun izugarriekin gonbaratzean.

Bermeon bezala, Zaldibarren oso toki gutxi dute gaixoek, beren biziera gela txikiegitan egiten baitute. Zaldibarren sartzerakoan, gaixoek lehen hestutasunak ezagutzen dituzte, berrogeitahamazpik 14 m²tako gela batetan bizi behar baitute. Hauetariko 20k ez dira gela honetatik kanpora gehiago aterako, bere bizitza bertan egingo baitute.





◀ *Beren artean kolpeka has edo beren buruak zauri ez ditzaten eskuak atzean edo zutabe batetara loturik jartzen zaizkie*

Ume ero baten mugimendua ikus dezakezue hemengo foto honetan

Psychogeriatría sailean leku eza arazo bat da, berriro: Laurogei urtetako adina duten hogeitahamaika andrekin $4'71 \times 5'85$ m²tako gela batetan bizi behar dute. Erigela ere, txikia eta aire eza da. Bermeoko farmako bide bakarra tratamenduetan Zaldibarren berraurkitzen dugu. Terapia arloan, lan mekanizatu tamalgarri bat egin erazten zaie gaixoei, egunean sei ordu, hileroko 25 pezetatik 200 pezetakoko alokairuak gaixoei ordainduz. Bai, ondo irakurri duzue: hilean 25-200 pezeta irabazten dute gaixoek. Eta, kontuz, ez hadi gaixo jar Zaldibarren, ofizialki ez baitago gaixorik Zaldibarren! Gaixo jartzen bahaiz, isolatu eta ezkutatu batera eramana izango baihaiz!

Zaldibarren egondako M.I.R. batek zerbitzu berezi bat antolatu zuen gaixoentzat. Zerbitzu honen bidez, gaixoak normalizapenera bihurtzea bilatzen da. Gaixoek etxelanak ikasi ondoren, Zaldibarreko etxe normaletan lanean hasten dira. Baina erotegiko Zuzendaritzak orduan ez ditu gaixoak "normalak" bezala ikusten, "bereziak" bezala baizik. Zergatik? Ez al da hau erotegi batek izan beharko zuen helburu nagusia?

ZALDIBARREN PSYKHIASTRARIK EZ

Erotegi batetan psiquiatra batek ez duela ezer egiterik pentsatu ondoren, Diputazioak psiquiatra batek egiten zuen gaurdi txanda kendu egin zuen, orain dela gutxi. Orain Zaldibarreko mediku batek egin behar du lan hau, ahal duen eran, edozein eratako psikik eta fisik gaitzak bere kontuan harturik.

ZAMUDIOKO "HOTELA"

Beste bi erotxeetan dauden akats, hutsune eta ustelkeriak ezkutatzeko egin zen Zamudioko "hotela". Itxuraz behintzat, Zamudioko psiquiatrikoa apaina eta atsegina da. Beste biak pizka bat txukuntzeko behar ziren diruak, Zamudion bota ziren barra-barra. Diputazioak, noski, Zamudiora joan erazten ditu bere bisitak, hauek Bizkaiko erotegien egoera jakin nahi baldin badute. Zamudio, gainera, Bilbotik hurbil dago eta Bermeo eta Zaldibar, berriz —eta Diputazioarentzat zorionez— urrugo.

Baina ez pentsa Zamudioko erotegian dena jaija eta paradisua denik. 1969. urtean egindako psiquiatriko honetan besteetan ikusi ditugun funtsezko akatsak aurkitzen ditugu. Sendabideak, hemen ere, farmako eta biologi bideetan ditu bere irtenbideak. Beste bi tokietan bezala, Zamudion gaixoa da bere gaixotasunaren erresponsablea, bere kaltearen erruduna. Bermeon eta Zaldibarren bezala, gaixoak muduarekin behar dituen loturak berrosatu beharrean, gelditzen zaizkion azken loturak hautsi egiten dira, gaixoa gehiago isolaturik. "Errudun" gaixo honek mundura itzultzeko bere azken



bideak eta ahaltasunak galtzen ditu, maiz betirako.

Ofizialki Zamudioko neuropsykhia tri etxea ikerketarako eginda baldin badago, errealitatean ez dago horrelako ikerketarik. Zuzendaritzak ez ditu onhartzen psykhia tri munduko bide berrienak, gaixoa bere mundu barruan sakonean estudiatzen duten bideak. Konduktismo edo "behaviorismoa", dynamik teknikak —hots, psykhiotherapia, psykhodrama, famili therapia e. a.— gauza arraroak eta ezezagunak dira Zamudion. Noizbait medikuren batek horrelako bideak erabiltzen baditu, zigortua izaten da. Zamudio barruan dagoen sistema organizistaren barruan ez dago eritzirik emateko biderik. Eta gutxiago kritikak egiterik. Eta hau gaixoentzat ere balio du. Gaixoei egiten zaien mehatxua zera da: Bermeora edo Zaldibarrera bidalia izango dela esaten zaio, ondo portatzen ez baldin bada. Hau izango al da Zamudioko "behaviorismo" bidea?



AZKEN HITZAK

Gure psykhia trikoetan dagoen egoera larri eta lotsagarri hau ezagutzean, guztiz ulerkorrak egiten zaizkigu bertan lan egiten dutenen kritikak eta protestak. Lerro hauetan agertu ditugu arazoak ez dira, gainera, arazo bakarrak. Gaixoak gaizki baldin badaude eta askok etxe hauen barruan deuseztatuak izaten dira profesional mailan. Zamudion, Bermeon eta Zaldibarren kritika bat egitea "gorria" izatea da eta, noski, hau edozein kaleratzeko "arrazoi" on bat. Bizkaitar psykhia tri bati Bermeoko, Zaldibarreko eta Zamudioko ateak hersten bazaizkio, ez du espezializatzeko edo berezitzeko posibilitaterik. Diputazio guztiz ahaltasuaren kontra burrukatzeko ez du mediorik, batasuna ez baldin bada. Zorionez, batasun hau gero eta handiagoa da psykhia trikoetan lan egiten dutenen artean. Baina sakonezko helburua, zera, psykhia trikoetan askatasuna sartzea, gure herri osoa askatua izatean lortuko da. Bermeo, Zaldibar eta Zamudioko gaixoek kanpoan —oraindik— gaudenokin batera lortuko dute beren askatasuna eta behar duten mundu "normalarekin" lotura.










GIZONAREN JATORRIAREN BILA

Duela zenbait hilabete, Euskal Herritik oso hurbil —Burgos-eko Atapuerca herriko lurretan hain zuzen ere— Europako giza haztarnarik zaharrenetarikoa aurkitu da. Egia esan, oso gauza gutti aurkitu da: baraila edo matel hezur oso bat, hiru baraila-zati eta zenbait hortz eta hagin. Aintzinasunari dagokionez, duela 200.000 urte bizi izan zèn "gizon" batenak dirateke. Horregatik, haztarna horik garrantzi handitekoak dira, zeren eta maila berri bat agertzen baitute gizonaren jatorrira garamatzan eskaieran, eta primate, pithekanthropo eta lehen "gizonen" artean dagoen lotura argitzera lagun baitezakete.



Hauxe da Atapuerca-n aurkituriko baraila



AURKITURIKO MATERIALEA NOLAKOA DEN

Aurkitu den baraila oso sendo eta konpaktu da. Pena bat da, hala ere, atzeko partea galdurik daukela ikustea honek informazio asko emanen bailiguke. Dena den, fosildurik heldu zaigun partea oso interesgarria da. Hasteko, esan dezagun, baraila horrek ez duela kokotsik. Dakigunez, giza animalia- ren eboluzioan, kokotsa poliki-poliki handituz joan den ezaugarri bat da, eta gaur eguneko gizonaren- gan argiroki aitzinaturik dago. Giza eboluzioaren prozesuan kokotsak ukan duen aitzinamendua alboko irudi konparatiboan ikus daiteke. Bertan ageri denez, Javako pitekanthropotik hasi, Atapuerca-ko gizon fosiletik segituz, Neanderthal eta Cromagnon-eko gizonetara pasatuz eta gaur eguneko gizona helduz, kokotsa aitzinatuz joan da.

Paraleloki —alboko irudietan ageri denez— bekokiaren eta garezurraren biribiltasunaren aitzinamendua ere gertatu izan da. Hori dela eta, Atapuerca- kan garezurrik aurkitu ez den arren, oker handirik gabe garezur hori nolakoa zatekeen pentsa dezakegu.

Barailaz gainera, zenbait hortz eta hagin ere aurkitu izan dira. Hortz-hagin hauk oso ongi kon- tserbaturik daude eta ez dute txantxar arrastorik. Estrukturalki, gaur eguneko gizonarenean antzera- koak dira, eta azken hagineta (zuhurraginetan ha- legia) tamainaren guttizera daraman prozesuaren hastapenak abiatu daudela susmatzen da. Fakto- re hau —jakintsuen eritziz— modernotasunaren sei- nale bat da.

Kalkulatzen denez, "gizon" honek hogeita bost bat urte ukan zituzkeen hiltzean. Orohar, di- tugun fosilen informaziotik pentsa dezakegunez, hiltzean, garai hartako giza animalien batezbesteko adina horrelakoren bat zatekeen. Bestalde, Ata- puerca-ko baraila ar ala eme batena zèn, frogatu ezin izan den gauza bat da.

FOSIL HORREN AINTZINATASUNA

Zientzilarien eritziz, hezur horik Neander- thal-eko gizonaren aurrekoak dira eta, dirudienez pitekanthropoekin lotu behar dira, edo, hobeki esa- teko, Pleistozeno Erdiko hominidoekin. Hala ere, zenbait faktoretan dudagarri gertatzen da, "Homo erectus" ala "Homo sapiens" den erabakitzea. Dena den, denetara "Homo erectus" bezala sailkatu behar dela dirudi.

Urtetan, uste denez, baraila horrek 200.000 urtetako aintzinasuna duke. Hortik datorkio, ba- tez ere, duen garrantzia, zeren eta garai horretako giza haztarren gutti baitago Europan: Bañolas-eko baraila, Mauer-eko baraila, Heidelberg-eko gizona eta ezer gutti gehiago.

NORTZUK IKERTU DUTEN

Aurkinkuntza eta ikerkuntza hau aurrera eraman dutenen izenak aipatzea, interesgarria gerta daite- ke. Aurkikuntza Trinidad Torres izeneko injinado- reak egin zuen, eta ikerketa teknikoa Emiliano Agi-

rre eta Jose Maria Basabe jaunen ardurapean burutu da. Zorionak, beraz, hiruroi, eginiko lanagatik.

Basabe jauna Bilboko Unibertsitateko irakaslea delarik —Antropologiako katedratikoa prezeski— berarengana jo dugu zenbait galdera egitera, beraren eritzia entzutea interesgarri delakoan. Basabe jauna oso interesaturik dago Euskal Herriaren eta Euskal Herriko gizonaren jatorriaz, eta arlo horretan zuzentzen ari da bere ikerketak. Harrera ezin hobea egin digu. Atapuercako hezurrei buruz zuzendu dugun elkar hizketaren puntu batzu agertuko dizkizuet.

Baraila bat nahiko ote da, orduko gizonari eta beraren bizimoduari buruzko informazioa edukitzezko?

Ezer baino gehiago ba da behintzat, eta egia esan, baraila hezurrik interesgarrienetarikoa da, informazio gehien ematen duenetarikoa baita. Beraz, horretan zortea ukan dugu. Dena den, fosilak inguruko materialekin batera aztertu behar dira; honela eginik, orduko flora eta fauna azter dezakegu. Tamalgarria bada ere, Atapuercako barailaren kasuan ez dugu kontextu edo bizinguru arkeologikorik, eta horrek mugatu egiten ditu extrapolazioak.

Eta haginek zer garrantzi eduki dezakete?

Hainbeste gauza adieraz diezagukete haginien gastapenak eta beraien egiturak. Batetatik, fosilaren elikapen modua eta dieta ezagutzeko bidea eskaintzen dute. Animalia erabat landarejalea denean, estria bereziak ikusten dira haginetan, mikroskopoz aztertuz. Haragijalea denean, beste egitura bat dute hortz-haginek. Atapuercako haginien kasuan, gastapen gutti dute, eta ba dirudi "gizon" haien dietan haragia ere sartzen zela. Bestalde, haginek ematen diguten informaziotik, "gizon" hark 22-28 urte ukan zitzakeela pentsa dezakegu.

Nola klasifika daiteke Atapuercako "gizona"?

Ahoaren egiturak agertzen digunez, musturra kanporantz irtena zuen, eta, dudarik gabe, pitekanthropo gisa sailkatu behar dugu. Honela, beste pitekanthropoen garezurra nolakoa den kontutan hartuz, Atapuercakoak ere antzerako bat zukeela pentsa dezakegu.

Une honetan, nola lagun dezake honelako aurkikuntza batek antropologiaren aurrerapenerako?

Asko, noski. Materiale gutti dagoelarik, edozein gehiketa baliagarri gerta daiteke. Bestalde, oso posible ikusten da, Atapuercan bertan bestelako fosilen bat ere aurkitzea. Edozein kasutan, ikerkuntz iturri berri bat ekarri digu, eta hori oso garrantzizkoa da.

Bukatzeo, eta Atapuercan hain hurbil dugularik, ba ote du horrek zerikusirik euskal gizonaren jatorriarekin?

Zientifikoki ez dugu inolako lotura berezirik aurkitzen. Gehien jota ere, gaur eguneko euskal gizona Cromagnon-eko gizonarekin lot daiteke. Horrik gora ez dakigu ezer.

Eskerrik asko, beraz, zure eritzi baliosengatik.




AURKIKUNTZA HONEN GARRANTZIA ETA ONDORIOAK

Ikusi dugunez, giza animalia jatorriari buruz hain elementu eta datu gutti dugularik, aurkikuntza hau oso garrantzizkoa da, elementu berriak baitakartza. Bestalde, ez da ezina, Atapuercako haztarnategi berean gizon fosil gehiago aurkitzea. Horretarako, zer esanik ez, azterketa arduratsu eta serioak egin beharko dira. Dena den, ba dirudi, azterketak aurrera eramanez direla, Burgos-eko Diputazioak 10.000.000 pezeta eman baititu asmo horrekin. Zoriterik balego, zer ez ote luke lagunduko, garai bereko garezur batek?


Antropologikoki, Atapuercako fosilak Afriko giza fosilekin duen antza kontutan harturik, giza animalia horren jatorria Afrika inguruan jarri behar dela pentsatzera garamatza. Gibraltarreko itsasartearen praktikagarritasuna posible kontsideratuz, Afrikatik Europa alderantz hedatu zatekeen giza animalia. Edozein kasutan, hala ere, Afrikatik jatorriarekin batera Asiatikoa ere hartu behar dute kontutan, giza animalia jatorriari buruzko teoria polizentrikoan finkatuz. Horrela, Europako giza animalia, Asiatik eta Afrikatik etorritakoen nahaste baten fruitua zatekeen.

Dena den, oraindik ez dago batere argi, zein eta nolakoa izan zen gizonaren sorrera. Baina, nolana ere, zientzilarik ez dute galtzen, sorrera hori gero eta gehiago eta hobeto ezagutzeko esperantza. Azken batez, horixe baita zientziaren aitzinamerdu bultzatzen duen indarra.

J.R. Etxebarria




GOZTERA BI MILA 2000



BERAIEN
HIZKUNTZA
ONGI IKAS

S	□	A	Ɔ	△	K	⋈	⬤	TS
∞	▽	B	∫	▽	L	⋈	⊙	TX
∫	△	D	∞	▣	M	⋈	▣	TZ
∞	▣	E	⋈	▣	N	∫	▲	U
⋈	▣	F	∫	▣	O	∫	▼	V
∫	▣	G	⋈	▣	P	∫	⊙	X
∞	▣	H	∫	▣	R	∫	▣	Y
∫	▣	I	∫	▣	S	∫	▣	Z
8	▣	J	∫	▣	T	∫	▣	DZ



Irudiak: Erramon Zumalabek
Gidoiak: Xabier Kintanak

SEGITZEKO

irakaslegoaren garrantzia

Martxoaren 15eko ANAITASUNAn, Israeleko irakaskuntzari buruz idatzi nuen. Artikulu hartan, hebraiera pertsona nagusiei nola irakasten zaien azaldu nizuen.

Denok dakizuen, Israelen ikastetxe berezi batzua daude pertsona nagusientzat. Holako ikastetxe batetara joan nintzen ni ere, eta sei aste pasatu nituen bertan. Nire asmo nagusia, hango metodologia ikastea zen.

Egia esan, hango irakasleek guztiz harriturik utzi ninduten. Nik ez nuen ordurarte halako irakaspiderik inon ikusi. Lotsaz beterik nengoen neure barruan, ni ere inoiz euskarazko irakaslea izan naiz eta. Irakasle haiek medio guztiak erabiltzen zituzten, ikasleei hebraiera laster laster irakasteko. Laster laster eta inor neka erazi gabe. Elkar hizketa, errepikamena, mimika, musika, irudimena, antzerkia, irratia, telebista, dantza: denaz baliatzen ziren, hebraiera poliki poliki ikas erazteko.

Artikulu hartan, gure maistrak lehen mailako ikasleoi nola irakasten zigun azaldu nuen. Eta promesa bat egin nizuen: beharbada, hurrengo artikuluan, hirugarren mailan nola irakasten zen esango nizuela. Baina promesa hori ez dut beteko. Eta esango dizuet zergatik.

Bitarte hortan, ingeles irakasteko metodo moderno bat ekarri zidan adiskide batek. Adiskide hori Ingalaterran egona zen, eta ondo ezagutzen zituen hango teknikak. Liburuak bi parte zeuzkan: bata irakaslearentzat eta bestea ikaslearentzat. Gogoz irakurri nuen metodo hura. Behin eta berriro irakurri nuen. Eta gauza batez konturatu nintzen berehalaxe: juduek teknika berbera erabiltzen dutela. Teknika ona, beharbada teknikarik onena. Eta atzerriko teknika hortaz baliatu dira, hebraiera Israel osoan urte batzuren buruan zabaltzeko, eta jende guztiari hizkuntza nazionalean mintza erazteko.

Hortxe dago, nire ustez, juduen meritua: hebraieraren irakaskuntzan herbesteko gauza onak berenganaturik, Estatu osoan zehar irakasle trebe eta bikainak prestatu dituztela. Dakizuen, Herriaren kontzientzia hebraieraren alde zegoen. Eta kon-

tzientziatez hori oso kondizionamendu inportantea izan da, dudarik gabe, hizkuntza nazionala berrizteko. Baina hura zabaldu duena, hura zokondo guztietara eramane duena, Israel osoa hain epe laburretan hebraieratu duena, irakaslegoa izan da. Irakaslego trebea, bikaina, ondo preparatua. Nire ustez, bigarren kondizionamendu hau gabe, ez zen hain laster gertatuko Israeleko mirari linguistikoa.

Pertsona nagusientzako ikastetxeak nonnahi aurkitzen dira: hirietan, herrietan, herrixketan, qibbutzetan, edonon. Eta edozer adinetako pertsona helduak joaten dira beraietara. Ikastetxe batzutan, egun osoan egoten dira ikas eta ikas, bost hilabetetan. Beste ikastetxe batzutan, berriz, bi urtetako epean, ordu pare bat ematen dute egunero, iluntzean nahiz gauean, lanetik irten eta gero. Israelera etorriberriei Gobernuak ordaintzen dizkie ikastaldiak; eta lana utzi behar dutenek, ez dute galtzen lantegiko soldata.

Nik neuk oso pertsona gutxi aurkitu nuen, hebraieraz ez zekienik. Eta kontutan eduki, Israeleko gehienak atzerrian jaiok direla. Argentinako juduen qibbutz batetan aurkitu nituen banaka batzua, gaztelaniaz bakarrik mintzatzen zirenak. Pertsona zaharrak, qibbutzeko gizarte bizitzan integratu gabeak, etxe barruko bizimoduaz kontentatzen zirenak, ikastetxera joateko gogorik ez zutenak. Beste guztiei igarri ere ez zitzaient egiten, Argentinan jaiok zirenik: hain ongi menperatzen zuten hizkuntza berria.

Euskal Herrian ere, hasi gara aspaldion euskal irakaslegoaren inportantziaz konturatzen. Sarritan ikusi izan dugunez, ikasle askok eta askok, borondaterik onenaz euskara ikasten hasi arren eta euskaltegira —pertsona nagusientzako euskal eskolara— hainbeste urtetan ibili arren, oso gutxi ikasten dute eta azkenean euskara ikasteari utzi egiten diote, asperturik, gogaiturik, etsiturik. Zergatik hori? Irakasle onak ez garelako. Euskalduntze eta Alfabetatze Batzordekoak guztiz komentaturik daude hortaz, eta hutsune hori betetzen gogo handiz ari dira.

Imanol Berriatua.

DONA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Eguraldi oso txarra dago. Gauean euri zaparradak jausi dira eta orain ere zerua hodeiez estalita dago. Kafetegiko atea zabaldu eta Doña Prudentzia salmahaira hurreratzen da. Idealista hurbiltzen zaio.

IDEALISTA.— Egun on, Doña Prudentzia.

Doña Prudentzia gabardinan duen ura astintzen ari da eta begiratu gabe erantzuten dio.

DOÑA PRUDENTZIA.— Ona diozu? Semeak sartu dira Agustinoen autobusean, baina ez dakit buelta eman beharko ez ote duten. Irratiak esan du Asua bailaran bideak urez estalita daudela.

I.— Zer, betikoa?

D. P.— Ez, gaur ekariezadazu zerbait berezi: txokolate eta txurroak.

I.— Zer ba!. Zerbait hospatu behar al duzu? Doña Prudentzia gehiago hurbiltzen zaio eta erdi ixilean bere segetua kondatzen dio.

D. P.— Gaur nire urtebetetzea da. Ez dizut esango zenbat egiten ditudan...

Eta aire misterios batekin bukatzen du, zigarro bat ematen diola.

D. P.— Eta hau zuretzat, Maiz eztabaidatzen dugu, baina adiskide onak gara. Idealistak purua hartu eta emozioz erantzuten dio.

I.— Milesker. Gure arteko eztabaidak, burruka baino jokia dira.

D. P.— Niri ere atsegin zaizkit...

Eta begirada malizios batekin galdera bat egiten dio.

D. P.— Eta gaur zertaz ihardungo dugu?

Esne saltzailea handik dabil eta ba dirudi zerbait entzun duela.

ESNE S.— Adibidez, Santiago Carrilloz.

Doña Prudentziak ahora zeraman txurroa berriz ere edalontzian sartuz biziki hitz egin du.

D. P.— Egia!. Ikusi al duzue Carrillo nolako patriota bilakatu zaigun?.

ESNE S.— Komunista baino Blas Piñarren koadrilako bat ematen du.

D. P.— Exagerada!. Blasek ez luke horrelako tiporik hartuko. Gainera, nor fida daiteke marxitez?. Ardi larruz jantziriko otsoak dituzu. Horiek nonnahi sartu nahi dute. Ikastolan ere sartu omen dira. Santutxuko batek esan dit. Eskerrak nire semeak Agustinoetan daudela.

I.— Eta uste al duzu fraideen kolegio batera bidaltzeagatik marxismotik libre geratuko direla?.

Doña Prudentziak harriturik begiratzen dio.

D. P.— Bai. Horretan ez dut inolako zalantzarik. Fraideen eta monjen kolegioetan arrisku hori minimum bat da. Idealistak ironiaz erantzuten dio.

I.— Bai, e?. Gaurko gazteria marxista dela maiz entzun dizut esaten.

D. P.— Eta horrela da.

I.— Ba, gazte horiek lehen ikasketak egin zituztenean ez zegoen ikastolarik. Horiek fraide eta monjen kolegioetan ikasi zuten, eta orain marxistak dira. Zergatik?.

D. P.— Unibertsitatean okertu dituzte.

I.— Arrazoi horrek ez dit balio. Unibertsitatean doan gazteria, gehiengo izugarrian, fraide eta monjen kolegioetan ibilitakoa da. Eta gehiengo izugarria izanik, nola ez dute inposatu beren ideologia?. Zergatik hartu dute minoria?.

D. P.— Ez dakit.

I.— Nik ere ez dakit, baina harrizkoa eta zertzekoa da. Eta gauza bat seguru da: ikastolek fenomeno horretan ez dutela parterik izan. Beraz, semeak marxistak irtengo diren ala ez, horren zergatia beste nonbaiten bilatu beharko da. Adibidez, antimarxista bezala agertzen direnen portaeran.

Dagoeneko Doña Prudentziak bukatu du bere txokolatea eta kalera irten da. Euria oraindik jausten ari da, eta eguerdirarte telebistak ez du esango Javier Ybarra Bergé bahitu egin dutela.

Xabier Gereño

REQUIEM LEGORBURUREN ALDE, REQUIEM GURE ALDE

Legorburu zèn baserri baten izena zen. Zen. Orain ez delako. Errea baita. Baitute. Legorburu Orozko aldean zen, Ibarra ondoan. Hor, 1964.ean neronek egindako argazkian agertzen da, denbora eta izate galduaren iratxo gisa.

Baserri baten galtzea —hainbat baserri hondatu baitago pinadi artean!— ez da gaur egun albiste bat, baina Legorburu ez zen edonolako baserri bat, Bizkaiko baserri zaharrena baizik. Eta erre da, erre digute. Mundu guztiak zekien Legorburu non zegoen, eta zer zen. Bizkaiko Diputazioak, Orozkoko Udalak ere bai, eta erremedioa zenean, baserri eder hori oso osorik eta ederki zegoenean, ez dute ezer egin gertatu dena gerta ez zedin. Orain, galdua, erabat eta betiko galdua denean, nigar hypokritak, falsukeriazko plantak egiten dituzte.


Katalunian faxista espainolek bertako baso eta oihanak erretzen dituzte udan. Hemen pinadiak erretzeak kalte baino mesede handiagoa lekarkigute eta, horregatik, geure herri artegintzaren azken monumentuak hondatzen dizkigute. Gure Herria, diotena diotela, **no es importante**, ez daukate berena.

Baserri bat galtzea tristagarria da, bai, euskal gizarte osoari egindako lapurreta nazkagarri bat. Egunero, ordea, handiagoak egiten dizkigute, eta ez gara horregatik batere kezkatzen. Eskolak, adminis-



trazioak, komunikabideek egunean egunean hiltzen ari digute. Eta gu, agintarien antzera, ixilik. Orain ere, hura zerraldo, hilhotzik egin arte, guztiok ixilik. Gero, erremediorik ez dagokeenean, aieneak, krokodiloen malkoak ixuriko omen. Zer nolako arrazoia Gandiagak: ez gara konturatzen, ez, nola ari garen urritzen, nola ari gaituzten, pittinka deserotzen.

Xabier ARMENDARITZ



DEITUREN INGURUAN ³

Euskal deituren prestigioa

Espanian, proportzionalki bederen, deitura ezberdin guti daude. Telephon liburuak ikustea aski da zenbait deitura (Pérez, Fernández, Gómez...) milaka lagunena direla konturatzeko. Eskasia horregatik, jakina, deiturek pertsonak bereizteko funtzioa ez dute izenek berek baino hobeki betetzen; horrexegatik deitura asko arruntu egin dira; nortasun bereizgarriarik ez dute. Euskal Herrian, eta orobat Katalunian, deiturak ugariagoak dira, nortasun handiagokoak, gaztelauen begietan, behintzat.

Ez dakit nork esan zuen *cualquier español que se precie debe tener por lo menos un segundo apellido vasco*. Ez naiz ni sartuko hori hola izan behar den ala ez eztabaidatzera. Hori beren kontua dute. Baina hor, inplizituki, beraiek kritikatzan duten euskal arrazismo eta harrotasunaren onspen garbi bat datza. Euskal deiturak, beren arrarotasunagatik, pitxiak, distiratsuak, gerta-

tzen dira, prestigios, espainolen artean.

Euskal Herriko vascoak (bekusa irakurleak euskal hitz honen azalpena **Euskal hiztegi modernoan**), separatiston gehiegikeria arrazistak jo eta ke kondenatzen



Fraga Iribarne, Salas Larrazabal... edo euskal deituren distira.

saiatzen direnak, beren "euskal deiturez" harrotzen dira (un español con 8 apellidos vascos delakoa oraintsu irakurriak gara), baskotasunaren oinharria, beste punttako euzkotarren antzera, paradoxaz, deituretan jarriz.

Etorkinekiko problema

Bitartean hemen hainbat lagun ditugu etxean, kanpotik etorriak izan arren Euskal Herriko partaide izateko gogoz beteak. Eta, honetaz, parenthesis bat.

PNVren kritika, zorrozki, zorrotegi agian, maiz egina dut horrialdeotatik. Gaur berarekin erabat bat natorreneko puntu entzatzat garrantzitsu bat aipatuko dut. Aurtengo bere batzarrean, euskalduntzat (baskotzat hobe) "Euskal Herrian, berau onharturik eta beronen alde lan egiteko gogoz bizi dena" hartua du. Eta hori behin eta berriro azpimarkatzekoa da, bai ETak eta bai beste askok, PNV ixilik zegoenean, boz goraz aipatua dugun izan arren.

Ez da aski hemen lan egitea, ez eta hemen bizitzea, horrexegatik, beste gabe, euskaldun edo basko, izateko. Nahia ere behar da, bertakotzeko gogo aktiboa ere nahiz eta ezkoa da. Zenbaitzuk —eta ez soilki estatalisten artean!— oraindik, ezkertiarasunaren izenean, eta erdaraz, dioten “Baskoa bere lanerako indarra Euskadin uzten duen guztia da” memelokeria hutsa da, politik kretinismoaren seinale gertua. Erregela berbera bestaldera aplikatuz, noski, Parisen lan egiten duten euskaldunak frantsesak liriateke; Alemanian ari diren espainol langileak, alemanak; Venezuelako euskaldun herbesteratuak, venezueciar, etab. Inongo toki normaletan onhartuko ez luketen formula, hain zuzen, euskaldun memelook, ez dakit nik nongo orthodoxiaren izenean, erabili behar!! Euskal Herrian bere lana uzten duenak gure Herriarekin bat egiteko gogo baldin badu, eskubide osoa dauka, hobe ez! horretarako, baina hori bere aukerapeko zerbait da, naziotasuna ez baita, gure gaurko egoeran behintzat, automatikoa.

Etorkinen arazoan, esandako deiturazalekeria jatorriz espainolaren kausaz, maiz irainak, mesprezioak eta burlak jaso behar izaten dituzte kanpoan jaiotakoek. Neronek, harriduraz behin baino gehiagotan entzun dut, gehienetan erdaraz, honelakorik: “Fernández izena du eta euskaraz ikasi nahi!”, “Rodríguez deituraz, eta alabari Ainhoa jarri dio!”, burlaz esanik. Deitura erdalduna zeukala eta, haurra ikastolara bidali nahi ez zuen familia jator konplexatu bat ere ezagutu dut!

Noski, kultura pixka bat dutenen artean (kultura, ez dirua!) horrelako absurdukeriarik ez da jadanik gertatzen, baina “Homo erdaldunis hypervasconicus” delako espezimen aberrante hori, zoritxarrez, ugariegi dabil oraino bazterretan, eta halakoek ez die etorkinei bertakotzea askorik erraxten, hain zuzen.



Israelen gehienek beren deitura arrotzak hebraieratu dituzte.

Normaltasunerantz


Edozein nazio, bere ohituretan normaltze eta homogenotasun baten bila joaten da, neurritzko oreka egoki bat lortzeko. Rikardo Arregik, humorez, euskal jakobinismoa ere behar genuela esaten zuen.

Kolonialismoaren ondoren, zapaltzaileen kontrako xenofobi giro gogorra agertzen da beti. Zapalkuntzaren markak kendu eta arrotzen portaera lazki kritikatu egiten dira. Tokien, hirien, kaleen izenak aldatu, jai zaharren lekuan berriak ipini, Historiaren interpretapen nazionala egin... Hor, noski, hypernazionalismoaren gehiegikeriak sort daitezke, eta sortzen, baina horik guztiok

behar beharrezkoak dira, hain zuzen, beste punttakoena, kolonialistenak, ezabatzeko. Penduluaren legea izaten da, berau pittinka, erditan geldi geratu arren.

Herri normal batek, halaber, deitura normalak izaten ditu, bere hizkuntz, kultur eta administral usuario propioen arauera moldatuak. Deiturak, aurrekoan ikusi genuenez, ez dira absolutu bat, administral seinale arbitrario huts batzu baizik. Eta arbitrario diren aldetik, aldagarri.

Euskal Herrian, noski, kanpaina zabal eta gogor bat egin behar da, kontzeptuak zabalduz, kultura emanaz, deituren egiazko funtzioa azaltzeko, ondorioz inork besteak, deituren kausaz, onets edo gaitzets ez ditzan. Bas-



Goitizenak, batzutan, erdal deitura ofizialak baino ezagunagoak izaten dira.

koen deiturazalekeriatik euskaldunen hizkuntzaidetasunera iragan beharra dago behin betiko.

Hala ere, gerora begira, politik eta administral autonomia handixeago bat dukegunerako, formula batzu pentsatu behar litrateke deituren arazo honetan.

Munduan gertatzen dena

Munduan zehar, oro har, deiturak oso modernoak dira —Turkian mende honetan hasi ziren lehengoz erabiltzen— eta ez dago, eskuharki, haienganako atxikimendu haundiegirik. Horregatik, aldatzeko problemarik ez da ia inon egoten. Amerikako Estatu Batuetara, bertan geratze-

ko asmoz, doazen arrotz gehienek beren deitura ingelesaren fonetikaren arauera aldatzen dute. Poloniako mendebaldean, azken gerra ondotik, gelditu ziren aleman jatorrizko gehienek beren deitura germanikoak utzi eta polonierazkoak hartu dituzte. Israeleko bizilagun gehientsuek, aleman, errusiar, espainol, ingeles, arabiar edo eta beste hizkuntzetako deiturak zituztenek, horien lekuen s hebraierazkoak hartu dituzte.

Arieh Xovalek Imanol Berrituari eta bioi, Israelen geundela, bere kasua kondatu zigan: "Gure aitak Slutzky deitura ukrainiarra du. Slutz Ukrainiako

herri bat da, eta Slutzky "Slutz tarra" esan nahi du. Ni neu Israelen jaio nintzen eta ez neuk bat ere zer ikusirik sekulan ez gutu ez nuen hiri arrotz horrekin. Horrela izanik, zertarak eraman behar nuen, "neurea bezalitz bezala" erabat arrotz egite zitzaidan deitura bat? Zergatik izen berberori neuri semecei utzi Orduan Bibliako pasarte batzutan israeldar familia batzuren izen zerrendak aztertu nituen haien arteko bat, Xoval, fonetikaz, laketa zitzaidan, eta nerentzat hartu. Anaiari proposa eta berek berdin egin zuten. Orain guztiok Xoval gara, gure seme-alaben antzera. Gure aitak egin genuena begi onez ikusi arren, hau esan zigan: "Ongi egin duzue, baina ni neu jadanik zaharregia naiz bizitza osoan eraman dudana Slutzky deitura hori aldatzeko. Neurea bego hor, dagoen dagoenean".

Deitura aldatzeak, Israelen 15 pezeta inguru balio du. Nor-tasun karneteko zenbakia, ordea, ezin alda daiteke, nahasbiderik ez izateko. Deitura, gainera, behin aldatuz gero, hamar urtetarako, gutienez, gorde behar da, berriro aldatu gabe. Espainian eta Frantziako, aldiz, hori posible denean, 100.000 pezeta baino garestiago gerta daiteke aldatzea.

Zenbait proposamendu

Euskal deiturak normaltzeko, proposamendu batzu agertu nahi nituzke.

Lehenago eta behin, orain arteko kultur kolonialismo nabariaraz desintoxikatzeke, geure izen-deitura jatorrak —toki eta herri izenen antzera— euskal idazkeraz idatzi beharko genituzke: Muxika, Antsorena, Errekondo, Elizalde, Latsa, Lexartza, Hiriarte, Baltzola, Agirre, Zearra, Etxeberria, Gartzeta... eta ez, orain arte bezala, Múgica, Ansorena, Recondo, Elissalt, Lasa, Lejarza, Hiriart, Balzola, Aguirre, Cearra, Etxeberria, García..., hots, erdal notarien apeta eta nahikerien formak baztertuz. Orain arteko er-

dal tradizioari, hemendik aurrera-ko euskal tradizio jator eta iraultzailea kontrajartzea beharrezkoa zaigu.

Ba daude, gainera, eta ez guti, baskoen begietarako euskal deiturarik eraman arren, horren lekuan beste bat, herritarragoa (baserriaren izena, etxeko goitizena...) jarri nahi luketen euskaldunak, eta berauei beren deitura ofizial ez-jatorra aldatzeko bidea ere eskaini behar zaie.

Gerta daiteke, bestalde, Euskal Herrian erabat sustraiturik dauden lagun batzuk —Arieh Xovalek aipatzen zituen arrazoi berberengatik— beren erdal administrazioko deiturak aldatu nahi izatea. Horretarako eskubidea ez litzateke ukatu behar, eta bai euskal administrazioan erraztasunak eman.

Deitura berria, batzutan, erdarazkoaren itzulpena izan liteke (makina bat euskal deitura erdaratu izan dira Euskal Herrian mendeetan zehar!): Sánchez: Antsoarena; Hernández-Fernández: Emandorena; Pérez: Perurena; Martínez: Martinena; López: Loperena, Lopategi; Pradera: Zelala; Montes: Mendieta(ko); Fresnedo: Lizardi, Lizartza, Leizarraga; Delgado: Argala,...

Beste askotan, itzulpen egoirik ez dagoenean, edo eta interesatuaren gustukoak ez direnean —kasurik ugarienak berauk, agian— beste edozein izen aukera liteke, deitura jatorren zerrendetatik. Goitizena, herri usarioan deiturak baino ezagunagoak diren aldetik, kasu askotan, eskubide osoz jar litezke deituratzat: Txillardegí, Ezkerra, Txikia, Txapela, Lantziri, Argala,...

Honetan, noski, hizkuntzaren eta giza duintasunaren aldeko gutienezko erregelak errespetatuz gero, erabateko askatasuna utzi beharko litzateke, izenetan bezalaxe.

Deitura egokiak hautatzeko, beharbada, ez legoke gaizki liburu bat egitea. Horretan deiturak, alfabetikoki eta era kanonikoan idatzita, ahal denean, beren esan-

guraz horniturik letozke, bai eta zein herritan ukan duten sorrera azaldu ere. Bigarren partean euskal herri eta hirien zerrenda lihoake, toki bakoitzetik irteadako deiturak agertuz. Hirurgarrenean, erdal deituren euskal ordain jator eta historikoak leudeke. Liburu horrek, gure geographian zehar bizi direnei tokian tokiko deitura jatorren berri emanen lieke, nahi izanez gero, bizitokiko izenez baliatzeko. Beste bide bat, asma daitezkeen beste askoren artean, gure herrietako baserri eta toponymiaz baliatzea dateke. Horrela deitura gehiago irtenen lirateke, deitura bakoitza, ondorioz, nor-tasan eta bereizgarritasun handiagokoa izanez.

Azken apartatu bat zera litzateke, euskal deitura ukanik, Madrilenganako amorio bero eta sutsuagatik, hain hizkuntza mespreziagarriaren seinalerik eraman nahi ez luketenena: berauek ere eskubidea dute, hobe ez!, euskarazkoaren lekuan erdarazko deitura garbia jartzekoa. Señorío de Vizcayako Alianza Popularreko batek baino gehiagok, noski, hori egin beharko luke, bere buruaz kontsekuente izateko behintzat: izan ere Gipuzkoako beren kide-

ek politik propaganda euskaraz egin duten bitartean, gure vizcaínoek espainol soilez agertu digute beren burua.

Azken ondorioak

Francoren gerra ondoan faxistek euskaldunak beren deiturak indarrez erdaratzeaz, itzultzeaz, mehatxatzen zituzten. Oraingo hau ez doa, eta ez du joan nahi, hortik. Deiturak aldatzeko erraztasunak emateak ez du esan nahi horretara nahiz eta nahi ez behartzea, bortxatzea. Bakoitzaren nahiak izan behar du beti erabakitzaile, ez legeak. Dibortzio kontuan bezalaxe: dibortziatzeko lege batek ez du inor dibortziatzera obligatzen, horretarako gogo, nahia edo eta premia duenari bide bat dio, soilki, eskaintzen.

Eta amaitzeko, mediku jatorraren bidetik, derradan, neronek neurea, hogeitahamar urteotan onerako eta txarrerako aldean eraman dudana, ez dudala aldatuko. Arabako herri horrek berea egiten ez duen artean behintzat.

Xabier Kintana

(Papus-etik hartua)




Euskal Herrian lan egitea nahikoa al da euskalduna izateko?



Beste zenbait bezala, Patxi Arana ere, Bermeoko gudarietarik bat, atera da espetxetik. Pozez eta ametsez beterik atera ere, Euskaditik kanpo iragan dituen hiru urteotako helburu nagusi bat beterik.

Urteotako helburu nagusia dio, zeren bere obsesioa izan baita ihes egitea, sarturik zegoen hiltxobitik irte-
tea, "Garbiñe Talde"ko lagun batzurekin egin zituen ihez-saialdi guztiek frogatzen duten bezala.

Bilbon detenitua izan zen, 1974.eko Apirilaren 4.ean. Urte bete Basahurin iragan ondoren, Carabanchelera 8 hilabetez egon zen (5 ihes-saialdi), berriro Basahurira itzultzeko eta 4 ihes-saialdi egin zituen. Hauetarik ezagunena iragan Abenduaren 6.an hasi zena izan da. Honen ondoren Cordoban egon da Euskadira etorri arte.



Kaixo Patxil.

—Gogoan dugu detenitua izan zinenean “delinkuente” izatez akusatzen zintuztela entzun zela. Zergatik?

—Erorketa nagusi batzuren ondoren zenbait komando lotura gabe gelditu ginen, ekintzarik egiteko posibilitaterik gabe. Une berean, bestalde, ekintza batzu egin ziren eta guri bota errua, pertsonal ekintza bezala. Niri, prezeski Basahurin egin zen atraku baten errua bota zidaten, inongo frogarik gabe, atrakatzailerik batekin nuen antz fisikoa base bakarra zenez. Haik ez ziren seguru, baina ni erre-dun aitortzea nahi zuten. Honela esaten zidaten: “Eroriko zain beste guztiaz gain, hau ez duk asko izango”. Geroago jakin nuen egunkarien bidez, kasu hau erabakita zegoela.

—Zergatik ikus erazi nahi izan zen, zure ustez, atraku hau pertsonalki egin zenutela loturarik gabe?

—Nire ustez ETA despretigiatu nahi zuten, bere militanteak desprestigiatuz, gure herria ETAz mesfida zedin eta, azken batetan, nahasketa eta zatiketa sortzeko.

GARBINE TALDEA... “ESPETXEKO KANTZERRA DEITZEN GINTUZTEN, BAINA GERO JARRAITUAK GINEN”

—Espetxean egon ginen uneoro gure obsesioa ihes egitea zen. Honegatik ez genuen parte hartzen gure lagunaren artean zeuden burruka askotan. Espetxea hilherri bat da. Lana Euskadin egin behar da, burruka herrian baitago.

—Ez zenuten, beraz, uste espetxean egiten ziren burrukak positiboak zirenik?

—Uste dut espetxe barruko burrukak positiboak direla laster ateratzea espero denean, gero herrian jarraitzeko. Hau ongi dago kondena motza dutenentzat. Gainerakoentzat irtenbide bakarra ihes egitea zegoen. Irten beste erremediorik ez dago. Hala ere, guztia da oso positiboa.

—Hitz egiguzu ihesaldietaz.

—Carabanchelen nengoela funtzionarioek kaleraino heltzen zen 200 metroko zulo bat aurkitu zuten. Operazio honetan bi hilabete t'erdi iragan genituen. Gure ustez, operazio hau burutzeko ahalmenik ikusten ez zuen komun baten salhapenez jakin zuten.

Beste lau ihes-saialdi ere izan ziren, baina azkar aurkitu zituzten.

Basahuriko lehen saialdia soka bat aurkitu zutenean zapuztu zen, zihurtzat baitzeukaten ihes-saialdia. Honegatik gure lagun bat gaztigu-gelan egon zen.

Bigarren saialdia, Segoviako ihes-saialdiaren ondoren egin ziguten araketa xehe batetan barrote zerratu batzu aurkitzean zapuztu zen. Inor erori ez bazen ere, lagun bat Zamorara eramán zuten.

Hirugarren saialdia. Estolda batetan hasten zen zulo bat agertu zen politikoen patioan. Hiru metro eginda zeuden eta beste hiru falta ziren atera aha izateko. Gela batetan buztinez estalitako harrial aurkitzean jakin zuten zulo honen berri. Zulo hori porlanez blaitutako olana batez estalita zegoen.

Honez gero hain zen handia funtzionarioen ihes psikosia, politikook beste gartzelatara bidaltzeko.

gestioak egiten hasi baitziren.

- Azken saialdia (52 egun teilatondo batetan ezkutaturik).

Aldatu egingo gintuztela ikusirik, behin gehiagor ihes egitea erabaki genuen. Honetan asko zihur egon behar genuen. Zulotik atera behar genuen hurraren arazoa estudiatu genuen, nonbait gorde beharra baitzegoen. Orduan teilatuek ematen zizkiguten posibilitateak ikusi ziren. Bi egunetan estudiatu zen plan osoa. Lanera joateko ihes egin genuela iruditu behar zuen. Eroturik nengoela esaten zidaten, baina aurrera jarraitu zen. Ihesaldi itxura baino lehen, hantsia genuen teilatua, barrutik guztia despitatzea, ihes egin genuela uste izan baitzen. 7,30. tan hasi ginen bilakera ahotsak entzuten. Gu ganbaran ezkutatuta geunden, geuk egin genuen orma baten bidez 20 metro separatuz eta isolaturik gelditu ginen. Igotzeko erabili genuen sapaizuloa aurkitu izan balute ere, inoiz ere ez gintuzten gu aurkituko, gela orma hartan amaitzen zela baitzirudien.

Hamar egunetarako janaria eta ura eta bakotzarentzat burusi bana igon genituen lehen egunetan hotz haundia jasan genuen. Tunea eta sapaizulo bat egiten hasi ginen, eta honela segitu genuen aurkitua izan zen Urtarrillaren 14.a arte. Uste baino denbora gehiago pasa bagenuen, zuloa uholde eta lur klakadagatik izan zen.

- Janaria eta ura 10 egunetarako bakarrik igon bazenuten, nola jasan ahal izan zenuten hainbat egun?.

- Janaria ez zitzaigun falta. Eraman genuena amaitzean, patiora ateratzen ginen, geure lagunek prestatzen zizkiguten janari poltsak hartzera. Gauez jaisten ginen, eta lasaitasun osoz gainera, gauez gartzela gurea baitzen; besteekiko harremanetarako, lan zegoen goardiaren aurrean ohar batzu boteaz baliatzen ginen. Lan egiten genuenetik gertu zegoen komun batetatik hartzen genuen ura.

- Argia?


- Ganbarako instalapena geuk egin genuen, behean zegoenaz baliatuz. Atera genituen kableak zuloa argia eramateko ere erabiltzen genituen. Egun argiz lan egin genuela zirudien.

- Zein ordutan hasten zineten lanean?

- Goizeko 7etan joaten ginen ohera, gainontzekoak jaikitzeke diana jotzen zutenean. Eguerdiko ordu batetan bazkalitzen genuen eta arratsaldeko 7etan, hasten ginen lanean tailerrak herstean. Ateratzen genuen lurra ganbarara igotzen genuen poltsatan; 14 toneladatatik gora ateratzera iritsi ginen.

- Zer gertatu zen zuloa aurkitu zutenean?

- Ez ginen adoregetu; zeren nahiz eta araketa xehe bat egin, ez gintuzten aurkitu. Beste egokiera batzuren bila hasi ginen.



– Nola aurkitu zintuzteten zuek?

– Ez dakigu zihurki. Tailerretan zerbait arraroa nabaritzea daitekeena da. Ikuzlekutik barrutiarren beste alderaino zihoan zuloa aurkitzean ere gerta zitekeen. Hortik iragan eta zuzendariaren autoa hartuz ate nagusitik ateratzeko asmoa genuen.

– Nola erreakzionatu zuten Basahuriko zuzendariak eta beste funtzionarioek?

– Oso urduri zeuden guztiak, erabat konprometaturik eta beren seguritate sistema osoa zalantzan gelditzen baitziren.

– Zein eratako errepresaliak jasan zenituzten?

– Ihes-saialdia gaztigu gelan berrogei egunez zigorturik dagoen falta nagusia dela kontuan harturik, ez genuen errepresalia gogorrik izan. Esan egin dut guztiz urduri zeudela eta ez zekiten zer egin. Nahiz eta mundu guztiak jakin guk ihes egin nahi izan genuela, jujearen aurrean amnistiaren aldeko hertsaldi bat egin genuela sinatu genuen. Handik Cordobara joan nintzen.

– Ihesaldi honetan preso komunek ere parte hartu zuten. Normalki kontuan hartzen al zenituzten komunak ihesaldietarako?

– Bai, komunen laguntza beharrezkoa baitzitzaien beti.

– Kalearekin harremanik ba al zeneukaten ezkutuan egon zineten bitartean?

– Bai, beti eta uneoro. Kalearen laguntza posiblea egunero hartzen genuen kontutan.

– Orain Euskadin zaude. Zer da zuretzat amnistia?

– Ez du beste esannahirik. Amnistiaz mintzatean gartzelan dauden guztiek irten behar dutela esan nahi da. Herriaren exigentzia da. Gu gartzelatik herriak atera gaitu. Ez negoziapenerako zerrenda batzuk.

– Preso komuentzat ere Amnistia?

– Une batetan zergatik ez? Zergatik guretzat Amnistia eta haientzat indultua soilik? Preso komunak bazterturik daude. Horienganako funtzionarioen trataera gogorragoa da. Carabanchelen, adibidez, zerbitzu nagusi bat komun bat kolpeka hil zuela akusatu zuten.

Gerora jakin ahal izan dugu zerbitzu nagusi hau Administratzailetzara goratua izan zela beste gartzela batetan.

– Zein bide ikusten diozu ezker abertzaleari?

– Abertzale bloke batu baten beharra ikusten dut. Une honetan KAS izan daiteke, askapen armada den ETAK sostengatzen duela.

Alderdi abertzale guztiak aglutinatzea beharrezkoa da, baina guztiok ongi etsita Euskadirentzako konponbide bakarria batasunean dagoela.

– Zein eritzi duzu eskuin abertzaleaz?

– Ez dago aipatu ere egin beharrik.

Itziar

euskal idazleak gaur

JOAN MARI TORREALDAY

EUSKAL IDAZLEAK, GAUR

HISTORIA SOCIAL DE LA LENGUA

Y LITERATURA VASCOS

Egiten jakitea eta egin ahal izatea ez dira Euskal Herrian, orain arte, ezkongai amorosegiak izan. Gazteak baleki eta zaharrak ahal balu hura bera da, baina kondua buru eta diru ahalmenetara pasatuz. Orain, ordea, lehenagoko sozial aurreritzi ustelak gainbehera datozenean, ezkontza edo, nahiago baduzue, arrimu hori gertatua da azkenean. Eta elkarte horren zorioneko umea aurrean dugu, euskaldunok botere, autogobernu eta ekonomi baliabideak eskuan dituzkegunerako zer nolako ondorioak lor ditzakegun erakusteko.

LIBURUA.

Euskal idazleak gaur. Historia Social de la Lengua y Literatura Vascas, 675 horrialdetako obra nardula (hiru kilo inguru pisutan, hamaika orduetan irakurtzeko datu luzeak interesetan). Ez guce gezurrik esanen berau, ez aurten, baizik Euskal Liburugintzaren Historia osoan orain arte euskaraz

agertu den libururik nabarmenena dela esanez gero. Hirur irakurbidetarako egina izan da. Lehenak, euskaraz, 1960-1975 arteko euskal literaturaren azterketa soziologiko bat eskaintzen digu, inkesta eta estatistikaz taiutua. Bigarrena, erdaraz, aurrekoaren osagarri, euskal hizkuntza eta literaturari buruzko dibulgaziozko panorama batekin dator. Hirugarrenean, azkenik, histori, linguistik eta idazleen irudi komentatuen bidezko informazio grafikoa (500 irudi inguru) agertzen da. 1937.etik 1975.erarteko euskal liburu guztien zerrenda dakar gehigarriaz, asko, liburuzale eta saltzaileak bereziki, eskertzen hasiak direna. Bibliografia luze eta aberatsez biribiltzen da lana. Papera, argazkiak eta presentapena oso onak benetan.

EGILEA.

Joan Mari Torrealday. Barka. Bera egile bat izan da, printzipalena, noski, baina bat. Bistan dago ez dela gaur egun holako obra bat bakarka egiterik. Horrekin batera Joseba Intxausti ere ba dago, historiako gorabehera ugariz liburua hornitu duena, eta Joxe Azurmendi —hitzaurre zoragarriagorik ez zioagu inori sekulan irakurri, halafedea!— Ramon eta Anton Egiguren argazkilariak eta Luis Iriondo, Lankide Aurrezkiko publizitate eta harremanetarako zuzendaria, ekoizpenaren arduradun izandakoa. Beste izen asko ere, seguraski, nonbait gordeta geratu izan dira, baina horiei ere eskerrak eman beharko litzaizkieke: originalak makinaz pasatu, moldiztegi probak zuzendu eta gisa honetako lan aspergarri bezain premiazkoak egin dituztenei, halebria. JAKINEko ekipa osoa dagoke hor sarturik.

AITABITXIA.

Lankide Aurrezkia, Euskadiko bankuak — bazterretan oraintsu irakurri dugunez — bere (gure) diruaz inbertipen on on bat egiten jakin du, eta horretarako begi zorrotza, noski, Luis Iriondok eduki duelakoan gaude. Berauen laguntzarik gabe, derragun berriz ere, ez zen posible holako obra harrigarri bat Platonen gogoko mundutik hankabikoonera ekartzea. Eskertzekoa da (?). Zeren horregatik ere kritika bat entzun izan baita. Hainbeste milioi liburu horretan eman dituen Lankide Aurrezkiak ezin al zitzakeen alfabetatze kanpaina, Euskaltzaindi edo ikastolen alde gasta? Ez al zituzten horiek guztiok diru premia handiagorik.

Lehenago eta behin, dirudienez, ez, ez zen posible hori egitea. Alde batetik, obra horretan inber-

tituriko dirua, kooperatibetarako dauden legeen arauera, holako lanetan sartu beharra zegoelako. Bestalde, eta kritika horri egin dakiokkeen kritikarik gogorrena hauxe da, euskal kulturaren alde zerbait —eta zerbait handi— egin duenari kritika egiten zaio, deus ez edo erdal kulturaren aldeko lanak egiten dituzten Euskal Herriko beste banku, aurrezki kutxa eta entrepresa guztiei inolako kritikarik egiten ez zaion artean. Dagiena bekatari, ez dagiena saildu, horixe dateke zenbait euskaldunen erizpide xeblea.

Horrez gainera, zertarako uka, gogoz zein gogoz kontra bizi garen merkatal mundu honetan, inork ez du —erabat behinik behin— ezer mosu truk ematen. Mesedeei eta emariei ahalik eta probetxu gehien ateratzen ahalegintzen dira guztiak. Bankuen inbertipenak, propaganda zuzenekoak ez direnean, prestigiozkoak izaten dira, finagoak, kultura lantzekoak edo, bai, baina horik ere, azken buruan, egile edo eragileen izen onerako izaten dira. Katalunian aspaldian dihardute holako lanetan bertako bankuek, eta hemengoak ere bide berean hasi zaizkigun baterako, hobe genuke horregatik poztea tristatzea baino. Herriko banku guztiak euskal kulturaren alde elkarren lehian balebiltza, hain zuzen, beste txori batek kantatuko liguke. Eta jadanik batek desafioa egin die.

MAMIA.

Nor da euskal idazlea? Nolakoa da? Zer da? Zenbat urte ditu? Non jaio da? Zertzu estudio, gustu eta heziera dauzka? Zenbat liburu idatzi ditu? Zeri buruzkoak? Nolako iturriak dauzka? Zeintzu arlo jorratu ditu?

Galdera guztiok erantzuten saiatu zaigu Torrealday. Horretarako, bere eritzia barik, besteen eritzia bildu eta analizatzea nahiago ukan du. Inkesta 143 idazleri bidalirik, horietako 83k erantzun zioten (inkestatuen o/o 62ek, hain zuzen) eta horietatik 61 hautatu izan ditu ongi erantzuntzat. Zifrok, osotoro asko ez diren arren, portzentaiaz oso gorakoak dira, eta pertsona baten lekuan 61en usteak azaltzea bera aski esanguratsua da.

Idazlearen geografi, soziologi eta kultur jatorriek datu argigarri asko ematen dizkigute. Ba dirudi, zorionean, inguruko nazioekiko, gure Euskal Herri hain different hau ere pixkanaka normaltzen hasia zaigula, Peru Abarkagandik maisu Juanengantzen ari dela, kaletartzen, mundutar kulturaz jantzen, profanatzen, profesionaltzen, Gipuzkoa-Bizkaiko hiri industriadunek nagusigoa agertuz.

Liburuan euskal idazleen eritziko idazlerik onenak, edo, hobeki esan, nahienak azaltzen dira hor, zenbait izen holako tokietan —onerako eta txarre-rako— agertzea inoiz harritzekoa gerta daitekeen arren. Irakurleen arteko inkestak ere argigarri lirajteke hauzi horretan, guk uste.

Idazlearekin batera, jakina, argitaratzaileen arazoa dago. Nola moldatu da orain arte euskalduna bere lana inprimatzeko? Nola banatzen dira euskal liburuak? Idazle eta editore arteko plangintzarik ba al dago? Beharrezkoa al da? Honelako galderei ere bere(n) erantzuna ematen dio(te) liburuan.

Idazlea, bestalde, ez da gurean liburugile soila, ba da kazetari eta artikulugile ere, eta hauxe, batez ere. Euskal aldizkarien ezaugarriak, helburuak eta joera bereziak agertzen ditu ba Torrealdayk.

Eta idazteaz arituz, noski, literaturgintzaren hartzaileagana ere heltzen gara: irakurleagana. Ba al dago irakurlerik euskaraz baina? Beronen gustuak onhartu ala aldatu egin behar ditu idazleak? Elkarren eragina norainokoa da? Nork zein moldatzen du gehienik? Ez dira hauk galdera bakarrak.

METODOLOGIAZ.

Torrealdayk lan handia izan du; hori argiro dago. Bibliografia, esaterako, ez da zerrendetan bakarrik aipatzen, textuan zehar baizik, eta etengabeki. Ba da, gainera, beste puntu bat; literaturaren azterketa soziologikoa egiteko prozedurak, orain arte, bizilagun ugaritako kultura eta literaturak arakatzeko erabili izan dira, baina gurean, daukagun nazional zapalkuntzagatik, ia erabat analfabeto den gure Herrian zer balio du abangoardismoak eta klasikismoak? Herri normaletan —edo normalagoetan bederen— erabiltzen diren parametroak ba al dago gure herri eznormal honetan gaur erabiltzerik? Oztopo hau ondo kontutan eduki du Joan Marik eta, gure ustez, ongisko gauditu ere bai. Izan ere, interpretapen guztietan beti, eta derrigor, egon daitezkeen subjektibismo guztien gainetik, lan aseptiko eta objektibo xamar bat eskaini digu.

BIGAREN IRAKURBIDEAZ.

Erdarazko parte hau ere osorik da interesgarri. Lehengo eta behin, derragun, txalotzekoa dela erdarazko textua letra tikiago eta irakurtzeko nekezago batez inprimatzea: eragozpen horrek ba du bere abaintaila erdararen beraren irakurterraztasunean. Euskarazko textu haundiek, optikoki errazago irakurtzekoek, euskararen zailtasuna biguntzeko mesede ona egiten dute, irakurle euskalduna, konaturatu gabe, erdal textuetara abia ez dadin soil soilki.

Parte hau, dibulgazio mailan egina izan arren, gustura, oso gustura irakurtzen da. Ez dakigu meritua norena edo nortzuren den, baina sintesis eder bat, datu biltze, sailkatze eta azaltze on eta ederki josi bat da, batzutan zenbait fusilamendu agertzen badira ere. Egileek, ordea, ez dute hori ezkututzen; helburutzat informazioa biltzea, berri ematea eduki dute, eta ez berek asmatzea.

Euskal literaturaren —eta, neurri batez, kulturaren beraren ere— ispilua da liburua. Gutaz zerbait jakin nahi duten erdaldunek —eta euskaraz, ez dezagun ahantz, erdaldun izateko aski da euskara ez jakitea— ba dute egokiro non ikas. Euskal kultura, orain arte maiz itxura pobrez jantzita zetorrelako, herabe zutenek ez dukete honez gero atxakiarik. Ez eta, beren ezjakinkeria lotsagarria estaltzeko justifikaziorik bat ere ez duten etxeok ere (Eta bentzute berau euskal, euzko, basko eta vasco politikari (asta) belarridunek!).

AZKEN OHARRAK.

Argazkiren kalitate apartaz zorionak Egigurendarrei, bai eta maketapenaren arduragatik L. Iriondori, batzuek eta besteak ohi ez bezalako lan bikaina lortu dute eta.







Azurmendiz ez genuke ezer esan behar. Euskal izateaz gainera erdal idazle ere agertu zaigu, eta ez edonolakoa, halajaina! Ez genuen Joxe hori ezagutzen eta harritu egin gaitu; bistan dago, gainera, agertua agertu ondoren bere aukerari, euskaraz soilki idaztekoari, meritagarriago eritzi behar diogula.

Guztioi, zin zinez, euskal hitzaurre sakonaz batera —eta zenbait esteta hermetikok ba du hor zaitzupentsa— erdarazkoa ere irakurtzea gomendatzen dizuegu. Ez duzue damutuko.

Zenbait errakuntza —moldiztegi-tako iratxoak ez baitaude inoiz geldi— azaldu izan dira hor haren hemenka liburuan zehar, gehienek, aski nabariak direlako, garrantzirik ez duten arren. Horretarik bat, humoretsua delako, baina, aipatuko genuke, 617. horrialdean azaltzen den liburu bat, Euskadiko Komunitate Alderdiaren bigarren biltzar nagusian, Mikel Zaraterena dela dio, Leopoldo Zugaza Durangokoak argitaratua. Ez dugu uste.

Liburu honetatik atera diren 45.000 aleak baimodutara banatuko omen dira. Lehengo eta behin erregaluz, Lankide Aurrezkiaren bezeroen artean, literatur eta kultur elkarte, talde eta kideengana ere helduz. Bigarrenik JAKINEko abonatuaren artean, 500 pezetako sari sinboliko bat jarritz (egiazko prezioa askoz ere goragoa baita). Tirada eta kondizio horiekin liburu mesedegarri hau parra-parra zabalduko delako zalantzarik ez dago. Eta hori beharrezkoa zen.

ANAITASUNA

		<p>JOAN MARI TORREALDAY Idazlea, soziologoa / Escritor, sociólogo. Liburuaren egilea / Autor de la obra.</p>
		<p>JOSEBA INTXAUSTI Idazlea, historikoa / Escritor, historiador. Lankidetasun berezia / Colaboración especial.</p>
		<p>JOXE AZURMENDI Idazlea, filsofaria / Escritor, filósofo. Hitzaurreak / Prólogo.</p>
		<p>RAMON ETA ANTON EGIGUREN Argazkiak / Fotografía.</p>
		<p>LUIS IRIONDO Publizitate eta Harremanen Zuzendaria (I.K.A.) Director de Publicidad y Relaciones (C.L.P.) Ekoizpena / Producción.</p>



LAU HAIZETARA

Imanolek grabatutako azken diskoa kaleratu da. Bera, Madrileko CBS etxeak egina. Disko hau, euskal musika munduan oso itxarona izan da, atzerrian hainbat urte pasatu eta gero, kantari honen eboluzioa ikus-entzuteko.

"Lau haizetara" bere hirugarren L.P.a da. Lehenengoa "Orain Borrokarenean", 1972. urtean grabatua; "Herriak ez du barkatuko", 1976.eko udan dira orain arte egindako diskografi lanak.

Disko honek erakusten duena, Imanolen eta beste bretoi adiskideek hainbat jaialditan egindako lana da. Hola, Roger Schaub, Bruno Barre, Xabier Iriondo, Jouenn Leberre eta Arnaud Rogers laguntzaile agertzen dira.

Gai konkretuetara pasatzen bagara, hiru zati desberdinak ikus daitezke. Alde batetik doinu instrumentalak; beste batetik erdarazko kantua eta azkenex euskal kantak.

Tematika aldetik lan berri gutxi dauka disko honek. Lehenengo garai batetan Mikel Azurmendiren hitzak musikatuz, orain, Mikel Arregik egindako hitzak, kantu berri bakarra bezala agertzen dira. Hauk, "Lau Haizetara" eta "Maitasunaren sutegia". Beste berria Gabriel Arestiri Lantzale taldeak egindako hitza da. Beste kantu guztiak, "Irakaslerik onena: bizitza", "Caminito de Erandio", "Euskadin Castillan bezala", "VietNam 1970" eta "Martillo Pilón", lehen egindako diskoetan agertzen dira. Hemen hau ikusiz, galdera bat sortzen zaigu: Bere aintzinako gaiak jende zabal bati erakutsi nahi izan dizkio, ala Imanolentzat gizarte egoera gutti aldatu al da?

Baina Imanolek eboluzio luze bat nabaritzen du. Eta hau musika formari begiratzuz. Euskal kantetan eta instrumentaletan, laguntza eta tresna aldetik desberdintasun bat agertzen da doinu guztien tratamenduan. Eta bereiztasun hau, Imanolen laguntzaileek begiratzuz konprengarria da. Doinu guztiak keltar-bretoi kutsu handi bat daukate, nahiz eta batzuk euskal sutrai txiki batzutatik irten. Gwendal taldearen interpretazioak oso onak iruditzen zaizkigu eta beren teknika izugarria dela hainbat tokitan agertzen da. Berrizko zortzikoko inprobisaketa batzuren antzera, baten bat esateko. Eta kutsu honek tankera desberdin bat ematen dio diskoari, beste euskal diskoekin gonbaratuz. Baina giro hau euskal musika baterako, formari begira,



norarteko aurrerakuntza edo eboluzio bat dela esan al genezake? Uste dugu, eta instrumentaletan argiago agertzen da, euskal sustraiak keltar infludentziagatik azpiratuak izan direla.


Erdarazko kantuek, euskara hutsez kantatzeko beharraren problematikan sartu gabe, gaztelaniako doinu-formak dituzte. Martillo Pilón deritzonak, Elisa Sernaren "Este tiempo de acabar" deritzon diskoaren infludentziak agertzen ditu, eta gogoratzaren gara nola disko bietan bibolinista gizon berbera den: Bruno Barre.

Azala, R. Vigilek izenpetua, egokia eta oso landuta dago. Diskoaren barneko irudi prestatu eta estetiko bat da.

Eta azkenex, laburpen bat egiteko, Imanolen azkeneko lan hau, bere lehenengo diskoak ezagutzeko oztopoak ikusirik, orain arteko lan egin baten bilketa on bat iruditzen zaigu, eta horregatik, hemendik aurrerako lana oso interesgarria agertuko litzateke, zeren posibilitate asko baitu.

Erletxe.

arteak eta gizarteak



Artean azaltzen den lehen problematariko bat, agertaldi artistiko eta egunerokoak diren aspirapen eta esperientzia amankomunen artean dagoen edo egon behar duen harremana da.

Magnitude honetako problema bati soluzio bat ematea edo burutzeta asmo bat da. Artikulu batek duen mugatasunarekin saiaterik sinplezia bat izango litzateke behintzat. Horregatik problemaren terminoak ipintzen saiateriko naiz. Eta artearen definizio baten barruan jartzen.

— Nola uler dezakegu artea?

- Gizona naturatik, inguratzen duten materialleek eskaintzen dioten posibilitatetik egiten duen kretze artistikoa.

— Baina, nola jokatzeko du errealitate hauetatik hasita?

- Gizarteak nahiz sormenak artikulatua egiten du, hau da: esperientzia bizi eta sozializatuek erazten dituzten elementuekin espekulatzen du.

Honela eta subjektu honi esker ematen da kristalizazioa, materialea, bizitza kolektiboa konposatzen duten forma kontraesanetatik.

Kristalizazio honek (materialea eta horregatik beste subjektuek kapta dezakeena) zeinu polemiko bat sortzen du.

— Zer esan nahi dugu "zeinu polemiko"rekin?

- Bereziki bi esannahi sinifikatu nahi ditugu. Lehena gairatzeko objektu bat aurrez onhartzen dela. Eta bigarrena objektu hori gairatzeko saiakerata bera da. Azter ditzagun bi esannahi hauek.

Arteak gairatzeko objektu bat suposatzen

du, artistik prozesuaren prestakuntza eta burutzeta ez baita hutsartearen egiten, ez eta ideien edo aspirapen hutsen erreinuan. Ez, artea berezitasun batzuetan ematen dizkion textuinguru konkretu batetan egiten da.

— Zein da textuinguru hau, eta zein eratarik erreperkutitzen du artistik ekintzaren prozesuari?

- Textuingurua bi elementuek definitzen dute bereziki: ekonomikoak eta ideologikoak.

Komunitate batek bere baitan sortzen diren kultur manifestapenaren aurrean, mementu konkretu batetan, hartzen dituen jarrerak osatzen dute ideologi elementua. Bestalde, ideologi elementu hau bera ere, nolabait bederen, ekonomikoak mediatizatuta dago.

Zalantzarik gabe, eta eztabaida guztien gainetik, erizpide garbi bat ba dago: merkatal ekonomikoak artean duen eragipena. Sozial estetika "onespena", neurri handi batetan, merkatu honen agerpenaren arte galeriek erregulatzen dute. "Ona/txarra"ren arteko bereiztea, artezko produktuen merkataltasun/-ik ez -etik finkatzen dute. Zentzu honetara, gairatzeko baloreak erregulatzen du arte merkatal merkatal ekonomian orokorki gertatzen den bereiziala.

Hala eta guztiz ere, garbi dago erizpide honen ez duela artea sostengatzen duen ekonomia bilbatzen osoa zuzenki erregulatzen. Alde batetara gelditzea dira eskala handian merkatalduriko zenbait "arteak" objektu.

— Aditzera eman dugu ekonomia arloak bereiziala duela parterik ideologikoan, baina zein zentzutan?



- Garbi dago artearen merkatua erosleak egiten duela posible. Beraz, artistak hasieratik artearen merkatuarekin hausten ez badu, mekanismo honen barruan kokatuta geldituko da. Eta honela kokatuz gero, komunitate batetan ekoitziko du, baina produktua ez doakio komunitate horri: erosle posibleei doakie, azken batetan.

Ez dugu upategiaren edo paisaia errazaren historiarekin loturarik gabeko "errealistetaz" bakarrik hitz egiten. "Errealista" klitxeta ez da salerraz bakararra. Geure komunitatean bertan ere ikusten dugu; "errealista" ez diren artezko produktuak oso salerrazak dira.

Artea gaingitu behar den objektutik eta gaingidzeko saiakeratik definitu dugu. Ikus dezagun orain bigarren parte hau.

Gizonak, artearen bidez, ukatzen zaion harmonia eta betetasunaren exigentzia agertzen du. Eta gaingitu nahi duen objektuak berak ukatzen diona. Adierazpen hau kontzienteak edo ez, izan daitezke, eginkorrek edo ez, baikorrek edo ezkorrek. Saialdia, arte mendekidearen hiru era klasikoetatik formulatuta dago: mekanikismoa, formalismoa eta funtzionalismoa. Nahikoa ez bada ere, sailketa hau erabiltzen dugu, egungo artearen agerketak, funtsean, biltzen dituelako.

Mekanikismoak, edo errealismo lanak, bere inguruan gertatzen diren fenomenoaren agerpena izan nahi du, zentzurik literalenean.

Formalismoak, iraganaldiko formak hautsiz, artearen definizio berriak sortu nahi ditu. Eta funtzionalismoak, aldaketa sozialerako arte egoki bat posible egin nahi du.

Azken biok, zutik dirauen "estetik onespere

na"ren bortxatzea, aldatzea suposatzen dute. Baina hasierako "erreberia", eta historia da lekuko, onespere bilakatzen da, artearen merkatuak haustura hori bereganatzen baitu.

— Nola izan daiteke, honez gero, artearen bidez komunikatzea?

- Funtzionalismoan bertan ere, artezko produktioaren eta komunitatearen arteko komunikapena urrunekoa da. Eta urruneko komunikapena da, zeren eta artista, nahitaez, merkatu ekonomiari loturik baitago. Esan egin dugu bere produktioa, beste edozein produktio bezala, kondizionamendu batzurekin sortzen da: artearen merkatua. Artistak, komunikapena nahi badu, alde batetik kondizionamendu honekin egingo du topo, eta bestalde, bere aspirapenekin, egoera konplexu batetan aurkitzen dela. Kultura arloko langile ororen arazoa da hau: bizimodua atera behar eta pentsakera bat formulatzea. Bilbapen konplexu honetan egin behar du artistak bere obra.

Bestalde komunitatea, gure objektuaren posesio gizarte honetan, obraren gozamenetik ez ezik, obra horietara hurbiltzeko kultur ibilgailuetatik ere, gutienez, baztertuta dago.

Honela artista eta komunitatea, paradoxa gertatzen bada ere, "komunikapena" urrunetik egiten den egoera batetan aurkitzen dira.

Azkenik, egiaztatu artearen subjektua eta honen gure komunitatean dituen egoera "tipikoak" deskribatzen saiatu garela. Hala ere, eta beste egun batetan ikusiko dugu, beharrezkoa da une honetan sortzen ari den zenbait planteiamendu berrikustea.

Aitor

EMAKUMEAK ETA HAUTESKUNDEAK

Emakumeok, gure erreibindikapenak defendatzeko, ez dugu laguntza handirik izaten normalki... orain berriz, hauteskundeak aurrez aurre ditugularik, alderdi guztiak emakumeen gain duten interes sakona agertu nahian dabilta. Honek, alderdi gehienei dagokienean behintzat, gauza bat adierazten digu, emakumeok botua eman dezakegula.

Baina botu emate hori, ez da beti izan dugun eskubide bat. Egin dezagun histori laburpen bat honen gain.

Emakumearen askatasunerako mugimenduak, bere hasiera, mugimendu eratu baten modura, USAn izan zuen. Baina lehen ere izan ziren emakumearen berdintasunaren alde lan egin zutenak. 1789garrenean, Frantziar Iraultza zela eta, Olimpia de Gougesek "Emakumearen eta hiritarraren eskubide deklarazioa" agertu zuen. Londresen, 1790garrenean, Mary Wolstonecraftek, beti Frantziar Iraultzari begira, "Emakumeen eskubide defentsa" egin zuen. Lehen Ipar Amerikan emakumeen arazoak planteiatzen hasi ziren, batez ere, hezieran sofitzen zuten desberdintasunari buruz. Horrela, 1780garrenean, Judith Sargent Murrayk "Emakume historiaren haro berria" idatzi zuen. Heziera maila honetan, 1820garrenerako lortu zituzten aurrerapen batzuek.

USAn, emakumearen askatasunerako burrukak, 1830garrenean antiesklabist mugimendua hasi zenean, jauzi handi bat eman zuen aurrerantz. Mugimendu honetan partaide ziren emakumeek, honen barruan sofitzen zuten bereizkeria zela medio, beren zapalkuntzaren kontzientzia hartu zuten. Antiesklabist mugimenduko ordezkari bezala emakume batzuek azaldu zirenean, Londresen izan zen nazioarteko batzarre batetan, ordezkari gehienek ez zuten onhartu emakume hauek legatu bezala lan egotea.

Hau ikusi ondoren, Lucretia Mottek eta Elisabeth Stantonek 1848garrenean, "Eskubide Berdintasunaren Aldeko Konbentzio" bat egitera dei egin zuten. Ekainean, Seneca Fallsen egin zen konbentzio honetan, 68 emakumeek eta 32 gizonek "Has tapen deklarazio" bat izenpetu zuten. Deklarazio honetan zera eskatzen zen: ezkontzan berdintasun osoa; jabetasun, alokairu eta semealaba zaingo eskubide berdinak; kontratuak egiteko, prozesatzeko eta prozesatua izateko, gortean lekukotasuna eta botua emateko eskubidea. Konbentzio honetan, emakumeak beren burruka eratzten hasi ziren. Lehenengo denboretan, botua eskuratzeko ez zuten garrantzi handirik emakume hauentzat, beste erreibindikapen batzuek garbiago defendatzen zituzten.

1861garrenean, gudu zibila etorri zenean, lehen antiesklabist mugimenduan bezala, emakumeek ekinez parte hartu zuten. Gudua bukatu ondoren, emakumeek berriz ere, sorpresa handia jaso zuten. Ustegabekoa izan zen, guduan hainbeste lan egin ondoren, emakumeek botu eskubidea ukatzea. Beltzek berriz, hau eskuratu zuten eta lehen emakumeen erreibindikapenekin zuten laguntzetasuna hemen bukatu zen.

Hau ikusiz, emakumeek, beren indar guztiez, sufragioaren alde burrukan hasi ziren. Honen ondorio bezala, mugimenduan zatiketa bat sortu zen; batzuk, botua, beste eskubide batzuek lortzeko bide bezala eskatzen zuten; besteek, botua eskuratzeko, funtsezko helburu bat kontsideratzen zuten. Ekin-tzan, batera jotzen zuten bi talde hauek, eta 1890garrenean birbatu egin ziren.

Emakume hauen burruka, gogorra izan zen benetan, interes asko baitzituzten aurka. 1900garrenean, sufragist mugimendua indartsua zen baina aurka zituen interesak ere bai, adibidez, alkohol industrienak, zeren sufragistek antialkohol mugimenduan parte eginkor bat izan baitzuten.

Azkenez, 1920garrenean, emakumeek bere botua eman ahal izan zuten, presidentzi hauteskundeetan, Ipar Amerikan.


Ingalaterran ere, sufragisten burruka, gogorra izan zen. 1867garrenean "National Society for Women's Suffrage" eratu zen. Udal hauteskundeetan, berdintasuna lortu zuten 1869garrenerako.

1903garrenean, feminista elkarte berri bat agertu zen, "Emakumeen politik eta sozial batasuna" izena zuela. Erakunde berri honek, lehen erabiliak baino burruka bide gogorragoak eramatea beharrezkoa zela esaten zuen. Gobernu ingelesak, emakume hauek errepresio basati batez zapaltzeko eginahalak egin zituen, baina ez zuten helburu hau lortu.

Sufragista hauek, Emmeline Pankhustek zioen bezala, hau garbi ikusi zuten: eskaketa hutsez ez zutela ezer lortzen. 1911garrenean, poliziek sufragist ordezkari komisio bati, egurra eman zitoten izugarriko basatikeriaz. Honen ondorio bezala, feministek bere gogortasun iraultzailea hasi zuten, Gobernuaren edifizioei su emanaz eta abar. Gartzelatan, emakume hauek gose greba luzeak egiten zituzten, nahiz eta hiltzeko zorian jarri beren burua.

Burruka honek lortu zuen bere helburua: 1928garrenean, emakumeek botua emateko eta hartzeko eskubidea eskuratu zuten Ingalaterran.

1789garreneko Frantziar Iraultzak ere, nahiz eta bertan emakumea partaide garrantzitsuenetakoa



bat izan, bere "Liberté, Egalité et Fraternité" ez zuten emakumeentzat irabazi.

1869garrenean hasi zen Frantzian emakumeen mugimenduaren eratzea. Legestan aurrerapen asko lortu ondoren, 1946garrenean sufragio eskubidea eskuratu zuten.

Italian, emakumeek, bere erakundeen bidez burruka luzea eraman ondoren ere, 1945garrenean eskuratu zuten botua eman ahal izatea.

Aztertu ditugun feminist mugimendu hauetan, emakume gehienak, dirudun klaseetakoak ziren. Hau normala iruditzen zaigu, kontuan edukiz, emakume langileek ez zutela politika egiteko denborarik, zeren lantegian lan egin ondoren, etxeko lan guztiak egin behar zituzten eta.

Baina honek ez du esan nahi, sufragista hauen eginkizuna, iraultzailea ez zenik. Beste aldetik, langile mugimenduak feministen aurrean hartzen zuen jarrera atzerakoia izan zen sarritan. Adibidez, Italian sufragistek botu eskubidea eskatzen zutelarik, sozialistek laguntza eskatu zieten erreibindikapen hau emakumeekin batera defenda zezaten.

Sozialist Alderdiak eske honi erantzun hau eman zion, AVANTI! bere aldizkarian 1910garrenaren Martxoan: "Sozialistek, sufragio unibertsala eskatzen zutela, baina ez emakumeentzat, zeren hauek botua eskuinari emango baitzioten... beraz, sufragistek, Sozialist Alderdiari ez, baizik eta alderdi kontserbatzaileei eta klerikalei eskatu beharko zieketela lagunkidetasun hori".

Hau irakurri ondoren, hau galde dezakegu: Nork izan zuen sufragist mugimendua langileriaren interesetik at egotearen errua? Sufragistek ala emakumearen eskubideak defendatzen ez zituzten alderdi "langileek"? Eta defendatu ez bakarrik, baizik eta bere bereizkerian parte hartu ere bai.

Sufragista haik irrigarri utzi dituzte historian zehar moeta guztiko jendeak eta erakundeek. Gure ustez, berriz, emakume hauek garrantzi handiko garaipen bat lortu zuten, lehenengo aldiz emakume bezala sofritzen zuten zapalkuntzaren aurka burrukatzean, horretarako erakunde bat sortzean eta botua emateko eskubidea lortzean.

Baina huts handi bat izan zuten eta hau izan zen: Botua eskuratzea, helburu bezala hartzea. Pentsatu egiten zuten ezen, botua eman ahal izatean, beste gauza guztiak lortzea erraza izango zela, hots, hauteskundeak batetan erori ziren. Botua eskuratu zutenean, feminist erakundeak hil egin ziren eta 1960garren ingururarte ez dira birbiztu. Urte hauetan hasi ziren berriro talde feministak sortzen,

gehien industri herrietan (USA, Ingalaterra, Frantzia, Italia, etab.).

Talde hauek berdintasun osoa eskatzen dute eta esan dezakegu, gaur egun, Emakumearen Askatasunerako Mugimendua herri guztietan zabaltzen ari dela, bere barruan joera politiko desberdinak jasotzen dituelarik, denek helburu baten atzetik: Emakume bezala, askatasun osoa lortzea bizitzaren maila guztietan.

Gaur, Hego Euskadin ba ditugu bertan, espainiar estatu osoan izango diren hauteskundeak. Hauteskunde hauek berekin dakartzaten baldintzak garbi daude: Amnistiarik ez, Askatasunik ez, Alderdi asko legalizatu gabe, polizia kaleetan egurra ematen... hauteskunde hauek demokratikoak direla diotenak, bitarik bat, edo ez dakike demokrazia izenak zer esan nahi duen, edo gezurti bat dateke.

Guk, emakumeok, zer jarrera hartu behar dugu egoera honetan? Gure herrian, ehunetik berrogei eta hamabi, emakume gara eta botua emateko eskubidea dugunez, eskuindar eta erreformist alderdiak gure botuen atzetik dabilta beren kanpainen zehar.

Nik ez dizuet esango hemen, hauteskunde hauetan botua eman behar dugun ala boikot egitea hobe den. Baina gauza bat garbi ikusi behar dugu: Alderdi bati edo besteri botua emanez, askatasuna lortuko dugula diotenek GEZURRA DIOTE! Ikas dezagun sufragisten esperientziatik: burrukaren bidez botua eskuratu zuten, baina burruka gelditu zutenean, beren erakundeak desegin zituztenean, botatzeko ahalmenak ez zien lorpen berririk eraman emakumei, berriz burruka hasi arte ez zuten eskubide gehiagorik eskuratu.

Beren kanpainen, zer defendatzen dute emakumearentzat alderdi eskuindar eta erreformista hauek? Zergatik ez dute exigitzen antikonzeptiboen eta abortuaren legalizatzea? Arrazoia garbi dago. Espainiar estatuan, botuak irabazteko, hau defendatzea ez baita taktika ona... zeren, oraindik jendeak moral aldetik problema asko baititu... Nola planteiatuko dute, ba, emakumeak bere gorputzaren jabe izan behar duela, hau Elizaren aurka baldin badoa eta jende gehiena, Euskadin eta estatu mailan katolikoa baldin bada? Alderdi hauen jarrearak hau adierazten digu: GURE BOTUAK NAHI DITUZTELA BAINA GURE ASKATASUNA BOST AXOLA ZAIELA.

Ezagutu ere behar dugu, hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi guztiek ez dutela jarrera berdina hartzen honi buruz. Ba daude, gure errei-

bindikapenak beren programan garbi azaltzen dituzten alderdiak, nahiz eta garbitasun honen bidez botu asko galduko dituztela jakin. Honek hau adierazten digu: alderdi hauek ez direla hauteskundeke-ria baten barruan sartu. Alderdi hauek ez digute esaten geure botua batzuei edo besteei emanez geure errebindikapenak lortuko ditugunik; hauek horrela dioskute: geure erakundeak sortuz eta geure burrukaren bidez lortuko ditugula. Eta honetan, arrazoi osoa dute.

Baina alderdi iraultzaile hauei, nik zera esango nien: orain esaten digutena oso ondo daogela, baina ez dela aski, noizean behin emakumearen esku-bideak hitzez defendatzea. Hau eguneroko lana dela eta iraultzaile denoi dagokiguna, emakumearen askatasunerako burruka aurrera eramatea dela.

Ba dakigu ezen, beste alderdi iraultzaile batzuek ez direla hauteskundeetara aurkezten, gaur egun

hau jarrera onena dela pentsatzen dutelako. Hau ere, gauza bera esango nien: ez dezatela emakumearen arazoa beren burrukan ahantz. Benetako iraultzaileak izan nahi badugu, edozein moztetako zapalkuntzaren aurka jo behar dugula.

Botua eman edo ez eman, ez da gauza asko ahaztu datuko guretzat. Geure problemak ez dizkigute beste batzuk konponduko. Konfidantza bakarra geure indarrean, geure burrukan izan behar dugula geure errebindikapenak lortzeko, emakume, Euskal Herri eta langileria bezala; hori baita bide bakarra, historiak beti erakutsi digun bezala. Ez gaitzezen berritro tranpan eror! Ez dezagun inoiz, hauteskundeetan eta burjes parlamentuetan geure konfidantza utzi!

ITZIAR

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi

ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA

Zabalbide, 68., Bilbo - 6

Posta kaxa: 495, Tfnoak: 433 58 00 - 09 08 - 07

Izen-deiturak

Bizilekua

Herria

Probintzia **Tel**

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako	700	pezeta
Latin Amerikarako	800	pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	900	pezeta

Ale bakoltza: 35 pezeta

DENEN BANKU BAT DENENTZAT BANKU BAT



Bankuau 140.000 pertsonen jabegoa duzu, eta zerbaki hau⁽¹⁾ egunetik egunera gehitzen doa.

Banku bat, akzionista jabe bezala parte hartzea nahi duten guztientzat zeharo irekia.

Banku bat, bertan urte bat baino gehiago daramatenak eta gero, jubilatatu eta pentsionistak, akzionistak, dituzu.

Banku bat milioi eta erdik baino gehiagok libreta dute eta bi milioi inguruk kontu irekia.

1857 an sortuniko banku bat, ideia eta zerbitzu eraberritzaileez horniturik.

Honela duzu Bilboko Bankua.

Benetan, ez gara beste banku bat gehiago. Utz iezaguzu erakusten

Dena argiago ikusiko duzu



BANCO DE BILBAO

(1) 1976 ko abenduan.

© MMLB Banco de Bilbao 77 B. Autorizado por el B. E. N.º 11.579



GEZURRETXAPEKO ALBISTEAK

Fragak la calle es mía esan zuenetik jabe pribatu eta eksklusiborako joera bizitxo bat sortu da bazterretan. Lehenik ere l'Aberrri-Eguna est nos esana duen PNVEk berak oraintsu Euzkadi a nuestra jakin erazi digu, horrekin Herria andrea es amorantea bezain femeninoa dela agertuz. Bain gauzak ez dira hor gelditzen, modu berean, abertz letasuna, hauteskundeak, indarra, ardatza, erri eragiña, sozialismoa eta euzkera ere Alderdi-Nazi horrenak baitira. Eta horregatik, PNV, seriooki, b re kide batzu (Mitxelena ez, noski!!) Euskaltzain diarekin mintzatzer, denen artean euskara batu ren arazoa konpontzera, bidaltzeko asmotan ome dago. Arrazoi berbereratik, euskara —milioiak er faxismoa bezala— berea duelako ustez fraga l' BARNEK Alianza Popularreko beste ordezkari bat igorriko omen dio gure Akademiari, eta ES eren izenean Txillardegi joango omen; Argalak, m traileta eta guzti, ETA militarrengandik azaltze gogoa ere ba omen du, eta ETA-pri-ren ordez E kerra ere bai, hiru eskubonbaz horniturik; PC España en Vascongadasekoen partez, noski, Ne ne; eta PSOEspañol, Toribio Etxebarriaren mon ere berton presente egonen da. EHASEk, jakin Davant agertuko omen du, etab. etab.

Bistan dagoenez, Euskararen batasuna ez idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain memelo soila arazo bakarra, zer demontres, politikariena eta m diku-osagileena baizik, eta horrela, hauteskunde demokratikoki, erabaki beharra dago. Arana ber ere, Hondarribiko behialako batzarrean, gauza hola erabakitzen saiatu zen, eta maisua maisu du beti.

lere

**sukalderako haltzariak, s.a.
eta orain
bainurakoak ere bai**

Particular de Estraunza, 4 y 6
Tel. 441 67 34 - 441 62 97
BILBO - 11
Ordezkaritza: Dr. Albiñana, 17
Tel. 435 46 02 - DEUSTUA.

LANKIDE AURREZKIAK honelaxeko **200 ERREGALI** zozkatuko ditu..

Lankide Aurrezkiak, apiril eta maiatzeko aurreztaileeri altzairu herdoigaitzezko mahaitresneria dotoreak eskaintzen dizkie.

200 familitan urteetan ere pozez erakutsi eta zorionez gozatuko diren erregali dotoreak, halafede!



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIAK



Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarren kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkaturik egon zaitezten.

Utz ezazu zeure uste osoa. Gipuzkoako lehen Kutxak den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

